



arteka

**batasuna
eta mitoa**

GEDAR

**«Beraz, helburua kapitalaren ekoizpen-
prozesuaren gaineko kontrola da, eta ez baliabide
abstraktuen gainekoa. Hau da, nazionalismoak
eratutako mitotik urrun, non okupazio militar
inperialista subiranotasun nazionalaren
aurkako erasoa izango litzatekeen eta nazio
osoaren erantzuna eskatuko lukeen –zeina, bizi-
komunitateari dagokionez, klase-kontraesanak
orekatzen diren espazio soziala baino ez den, are
gehiago kapitalaren gerra kritikoarena bezalako
une erabakigarrietan–, burgesiak bere artean
benetan borrokatzen duena, eta gatazka belikoan
amaitzen dena, ez da nazioaren baliabide
baten eskuratzea, baizik eta langile klasearen
ustiapen-prozesuaren gaineko kontrola, zeinaren
bidez burgesiak gainbalioa erauzten duen»**

Editoriala — 6 or.

06

EDITORIALA
arteka
Batasuna eta mitoa



IKUSPUNTUA
Paul Beitia
Artearen mailutasuna



16

ERREPORTAJEA
Leire Regades
Palestinako bake kolonizatua



26

IKUSPUNTUA
Ane Ibarzabal
Gazteak kriminalizatuz
langileria makurrarazten



30

IKUSPUNTUA
Ainhoa Vidal
Proletario izaera



34

ERREPORTAJEA
Eneko Carrion
Txina vs AEBak:
aldaketa al dator?



46

IKUSPUNTUA
Adam Radomski
Automobilgintzaren sektorea



52

KOLABORAZIOA
Jon Kortazar
Donbasseko borrokaren
sustrai ideologiko
zein historikoak



64

IKUSPUNTUA
Martin Goitiandia
Medikuntza eta
ofentsiba burgesa

Batasuna eta mitoa

EDITORIALA

Ugariak dira mende hasieratik gertatu diren gerrak eta nazioarteko gatazkak deituri-koak. Hain zuzen ere, gerra inperialistaren paradigma berri batekin hasi zen mendea –*demo-kraziaren aldeko eta terrorismoaren aurkako gerra, menderatze-baliabide zahar kiratsa zeriona*–, baita errealitate eta umiltasun dosi batekin ere, aro inperialistaren amaiera aldarrikatzen zutenentzat, eta, horrekin batera, ezinbestean, kapitalismoaren amaiera kritikora, krisira, nahiz gainbalioaren iturrien birbanaketa kapitalistarengatik gatazka belikora eramaten duten kontraesanen amaiera aldarrikatzen zutenentzat.

Gerra inperialisten izendatzaile komuna da gobernu bat eraistea beste bat ezartzeko. Gobernu berri horrek, herrialde inperialistaren txotxongiloa izan arren, forma demokratiko-nazionala hartu ohi du, menderatze kapitalista gauzatzeko modurik sinpleena baita. Prozesu hori, batzuetan, lurralde bat esplizituki okupatuz gauzatzen da, eta, beste batzuetan, gobernuaren oposizioari zuzeneko dirulaguntza emanez eta hura erosiz, kreditu bidez, gero itzuli egin behar dena, eta erruz itzuli ere. Azken finean, burgesiaren fakzio bat boteretik kentzea da helburua, beste bat altxatzeko edo eratzeko, eta, behin gobernu berriaren boterea ziurtatuta, gutxitan luzatzen da atzerriko okupazio militarra. Gobernu berri horrek atzerriko kapitalaren inbertsioak erraztu behar ditu, eta zehatzago eta bereziki, gobernua ezarri duen herrialde inperialistaren inbertsioak, bai diruaren forman, nola ekoizpen-elementuen merkantzia-forman ere.

Beraz, helburua kapitalaren ekoizpen-prozesuaren gaineko kontrola da, eta ez baliabide abstraktuen gainekoa. Hau da, nazionalismoak eratutako

mitotik urrun, non okupazio militar inperialista subiranotasun nazionalaren aurkako erasoa izango litzatekeen eta nazio osoaren erantzuna eskatuko lukeen –*zeina, bizi-komunitateari dagokionez, klase-kontraesanak orekatzen diren espazio soziala baino ez den, are gehiago kapitalaren gerra kritikoa-rena bezalako une erabakigarrietan*–, burgesiak bere artean benetan borrokatzen duena, eta gatazka belikoan amaitzen dena, ez da nazioaren baliabide baten eskuratzea, baizik eta langile klasearen ustiapen-prozesuaren gaineko kontrola, zeinaren bidez burgesiak gainbalioa erauzten duen.

Prozesu hori baliabide naturalen zuzeneko kontrolaren gainean euts daiteke, horien jabetza pribatuaren gainean, baina ez nahitaez. Helburua aberastasun abstraktuaren soberakina kontrolatzea da, gainbalioa bereganatzea, kapitalaren prozesu ekonomikoaren bidez, eta ez halako edo bestelako baliabidez jabetzea, bere erabilerak axola izan gabe. Baliabide bat urria denetan ere, eta, beraz, haren forma material zehatzak erabakigarria eta haren kontrolak estrategikoa diruditenean, petrolioaren eta gasaren kasuan gertatzen den bezala, hori ez da baliabidea ezinbesteko eta bere gaineko kontrola botere-auzi bilakatzen duen erlazio soziala ezkutatzen duen mantu bat baino. Horregatik, helburua ez da bizitzaren erreprodukzio abstraktua, baizik eta bizitza kapitalistaren erreprodukzioa, eta posizio horretatik bakarrik erlatibizatu daiteke baliabide baten edo bestearen garrantzia.

Gainbalioa lortzeko helburu gorenerako, edo, ikuspegi kapitalistatik esanda, irabazia ekoizteko, eraginkorra izan daiteke 1) baliabideak prezio baxuan eskuratzea, inposatutako merkataritzaitunaren bidez, edo, are gehiago, herrialdearen

“

Bada, baliabideak klase menderakuntza gauzatzeko bitartekoak besterik ez dira: batzuetan, gainbalioa sortzeko bitartekoak; beste batzuetan, mundu mailan ekoitzitako gainbalioa –langile klasearen esplotazioan duena jatorria– bereganatzeko aparteko bitartekoak. Hau da, baliabideak kapitala dira, langile klaseari kontrajartzen zaizkiolako eta lan bizia erauzteko bitartekoa direlako

“

Paradigma burgesaren menpe, inperialismoaren aurkako borroka, nazio kapitalistaren iraupen positiboaren aldeko borroka bihurtzen da, baita ordena sozial kapitalista legitimatzeko tresna ere. Lenin izan zen, aldiz, gerra inperialista burgesiaren aurkako proletalgoaren gerra zibil bihurtzearen aldeko jarrera defendatu eta nazioartera zabaldu zuena, gobernu burges ororen aurka agertuz

demokratizazio-zerbitzuaren ordainketa gisa, 2) baliabide horien gaineko zuzeneko kontrola, kapitalak herrialde batean produktiboki finkatzeko eta gainbalioaren transmisio-kate osoa kontrolatzeko ahalmena izan dezan, edota, baita ere, 3) interesak bueltan ekarri behar dituen diru-kapitalaren esportazioa, zor publikoaren erosketa eta bestelako finantza-negozioak. Burgesen arteko lehia-prozesu horren mende geratzen dira merkataritza-gerra edo etsaiari egindako boikota, baliabideak suntsituz eta hornikuntza-bideak monopolizatuz.

Bada, baliabideak klase menderakuntza gauzatzeko bitartekoak besterik ez dira: batzuetan, gainbalioa sortzeko bitartekoak; beste batzuetan, mundu mailan ekoitzitako gainbalioa *–langile klasearen esplotazioan duena jatorria–* bereganatzeko aparteko bitartekoak. Hau da, baliabideak kapitala dira, langile klaseari kontrajartzen zaizkiolako eta lan bizia erauzteko bitartekoa direlako.

Inperialismoa, estatu bateko mugetan nagusi den ordena sozial kapitalista beste estatu batera eramatean datza. Horregatik, ez du gobernu-forma bat esportatzen, baizik eta barne-merkatu bilakatzen du kanpo-merkatu bat, edo, gutxienez, hain kanpokoia ez den merkatu bilakatzen du, burgesia inperialistaren interes ekonomikoen aldeko. Ekonomiari jarritako kanpoko muga politikoak ezabatzean datza, edo potentzia inperialistaren alde, eta gainerako estatuen aurka, berriz ezartzean. Zentzu horretan soilik da subiranotasun nazionalaren aurkako atentatu bat, burgesia nazionalari kapitalaren gaineko boterea eta kontrola usurpatzen dizkion heinean; baina inola ere ez dio langile klaseari berea ez den zerbait usurpatzen, aldez aurretik ere ez delako berea, eta hortaz, ez luke horren alde borrokatu behar burgesiarekin batera, baizik eta burgesia horren eta jabetza-modu horren aurka.

Gerra inperialista bat nazio osoaren aurkako eraso gisa, okupazio nazional gisa, kategorizatua izan dadin, beharrezkoa da, beraz, nazioaren barne-kontraesana, klase-kontraesana, eta gerra inperialistari berezkoa zaion klase-prozesua desitxuratzea eta ezkutatzea. Prozesu mistifikatzaile horri nazioaren mitoa deitzen diogu, eta inguratzen duen mitologia guztia osatzen du, gehienbat, nazioaren mitologia eratzaille handia artikulatzen duen errebisionismo historikoaren gainean, eta historia osoa bihurtzen du nazioaren historia, inoiz existitu ez zen tokian ere berau sortuz.

Pentsaera nazionalista horrek klaseak adiskidetzen ditu, baita forma sozial antagonikoak ere. Proletalgoa burgesaren anai egiten du, baina baita esklabistarena, jaun feudalarrena eta erregeena ere.

Ezer ez da geratzen bere naziotik kanpo, baldin eta nazioa egiten badu. Soldatapeko lana eta esplotazioa nazio ekoizleak dira, esklaboa zigortzen duen zartailua bezainbeste. Egia da, ordea, proletalgoak ez duela inoiz estaturik izan, ezta naziorik ere, beti ukatu izan baitzaizkio. Era berean, kontua ez da nork ekoizten duen mendekotasunez *–mitikoa eta mistifikatzailea den «existitzen den guztia langileriak sortu du»–*, baizik eta nork egiten duen prozesua bere interesen mendeko *–kontua ez baita guztiak langile klase bihurtzea, klase sozialak abolitzea bai-zik–*. Eta burgesia subjektu hori den heinean, inbasio nazional oro gainbalioaren ekoizpenaren kontrolaz jabetzeko burgesen arteko borroka besterik ez da, klase-esplotazioa da maila internazionalan eta politikaren eremurik bortitzenean.

Paradigma burgesaren menpe, inperialismoaren aurkako borroka, nazio kapitalistaren iraupen positiboaren aldeko borroka bihurtzen da, baita ordena sozial kapitalista legitimatzeko tresna ere. Lenin izan zen, aldiz, gerra inperialista burgesiaren aurkako proletalgoaren gerra zibil bihurtzearen aldeko jarrera defendatu eta nazioartera zabaldu zuena, gobernu burges ororen aurka agertuz.

Inperialismoaren aurkako borroka ezin da subiranotasun nazionalaren aldeko borroka izan, inperialismoa kapitalaren mundializaziorako joera ekonomikoa baita, subjektu zentro-inperialistak gidatua. Modu bakarra mundu mailan aurre egitea da, antolakuntza komunistaren bidez. Horregatik, auzia ez da nazioak kontraesan kapitalisten erdigune kudeatzaile gisa irautea, baizik eta haren gainditzea, subjektu burgesaren abolizioa eta komunitate askearen eta komunitate askeen eraketa. Azken finean, internazionalismoa borroka-batasuna eta batasun estrategikoa da, etsai komun baten aurka eta formazio sozial berri baten alde. Aipatutako zentzuari ulertu behar dira jarraian aurkezten ditugun gatazkak, eta zentzu horretan jorratu, klase-batasunetik, esplotazio klasistaren eta horri datzekion gerra inperialistaren amaieraren alde. /

ARTEAREN MAILUTASUNA

Testua **Paul Beitia**
Irudia **Erik Aznal**



Gabriel Arestiren figura bakarretan bakarra da gure kultur tradizioan eta halaxe izaten jarraitzen du gaur ere, ekainean haren heriotzaren berrogeita bosgarren urteurrena bete berri den honetan. Bakarra da, alde batetik, ukaezina delako bilbotarrak Euskal Herriko bizitza kulturalean eta literarioan izan zuen garrantzia. Euskal literaturak izan duen poeta onenetakoa da, obra aberats eta sendoa utzi zigun, eta obra horrexekin bultzatu zuen harago, bai edukiz eta bai formaz, mantso samar zegoen euskarazko literatur ekoizpena; euskararen inguruko hainbat gairi hartu zien aurre, euskara batuarenari edo langile-immigrazioaren auzi linguistikoarenari, besteak beste; euskaraz posizionamendu proletario bat hartzea posible zela erakutsi zuen; kritiko eta polemista zorrotza izan zen gai sozial eta kultural askorekin eta oraindik baliotsu zaizkigun hainbat lan-ildo urratu zituen; heriotzara arte lagundu zien hurbil sentitzen zituen gazteei. Gauza gehiago aipa daitezke, baina aipatutako edozerk ez luke haren figuraren garrantzia berretsi besterik egingo.

Garrantzi hori, hala ere, egin zituenetatik harago bilatu behar da. E. P. Thompsonek William Morris artista sozialista ingelesari buruz zioena parafraseatuz, Aresti ez da garrantzitsua egin zuen guztiagatik, jarduera horiek guztiak biltzen dituen ezaugarri bategatik baizik: haren etikagatik. Koldo Izagirrek azpimarratu zuen, «Gabriel Arestiren poesia etika bat da», baina gehiago ere esan daiteke; haren figura bera da etika bat, eta etika hori da ulertu behar dena Aresti ulertu nahi bada. Bigarren zentzu batean, horrexegatik da bakarra Arestiren figura: inork gutxi ulertu duelako benetan, nire ustez. Saiakerak asko egon dira. Nazionalismotik begiratu dionak

**Aresti ulertu nahi bada,
haren posiziotik bertatik
egin beharra dago,
tradizio komunistatik,
alegia, eta horregatik,
hain zuzen ere, egin
dute porrot hura
interpretatzeko
eta kritikatzeko
saiakera ugari**



espainolismoa ikusi du haren posizionamendu sozialistan edo, kontrara, haren «aitaren etxea» desklasatzeko saiakera egin du; beste batzuek balizko humanismo abstraktu bat ikusi dute haren «beti paratuko naiz gizonaren alde» maximan, ulertu gabe Arestiren «gizona» oso zehatza zela, proletario zapalduz ari zela soil-soilik; eta, azkenik, egon da haren *ni poetikoan* indibidualismoa baino ikusi ez duenik ere, Arestiren poesiak daukan kontzientzia historiko nabarmenari ez ikusi eginda.

Kontzientzia historiko hori dago Arestiren posizio etikoaren muinean, eta kontzientzia historiko horixe izan da, nire ustez, haren figura ulertzeko oztopo nagusia. Arestiren posizioa komunista da oso-osorik: proletario gisa zeukan bere burua, kontsekuenteki eta kontzienteki hartu zuen Euskal Herriko eta mundu zabaleko langile-masen klase-posizio bera, eta etengabe aldarrikatu zuen gizarte sozialista posizio hori gainditzeko modu bakar gisa. Nire iritziz, Aresti ulertu nahi bada, haren posiziotik bertatik egin beharra dago, tradizio komunistatik, alegia, eta horregatik, hain zuzen ere, egin dute porrot hura interpretatzeko eta kritikatzeko saiakera ugari, haren posizio politikoa ez dutelako aintzat hartu edo ez dutelako konpartitu. Komunistontzat, Gabriel Arestiren garrantzia haren etika sakonki po-





Bat datoz Brecht eta Aresti artearen mailutasunean: lanabesa da, alde batetik, burgesiak nahiko lukeen leku pribilegiatutik proletalgoaren eskuetara ekarria, eta arma, bestetik, sozialismo iraultzaileak egoki erabiltzen badu

litikoan dago. Ertz askotatik begiratu dakioke gai horri, baina artikulu honetan haren ekoizpen poetikoari begiratuko diot batik bat, arte sozialistaren inguruko eztabaidan lagun diezakegula uste izanda.

Aresti erdi ahaztua eta desitxuratua izan delako, hain zuzen, da beharrezkoa berriro haren jatorrizko testuetara jotzea. 1960an Donostiako udaletxe zaharrean irakurri zuen «Poesia eta euskal poesia» hitzaldian, esaterako, poetaren eginbeharraz hitz egiten du aurrenekoz. Arestirentzat poeta «ideien asmatzalea, edo, hobeki esanik sentimenduen asmatzalea» da, eta «mandatu» bat dauka, «zer eta zergatik» galdetu behar du «eta batez ere, beste gainerako gauza guztien gaineratik, zertarako». Alegia, Arestiren ustez, poetak zerbaitetarako idatzi behar du poeta izateko, eginbehar bat eduki behar du: horra bere posizio etikoa poesiarra eramana. Gerora garatuko duen ikuspegi sozialista helduagoarekin alderatuta, hogeita zazpi urteko Arestiren posizio etikoak inozenteagoa irudi luke, baina bizitza osoan iraun zion sendotasuna erakusten du ordurako: «gizonak gizona katigatzen» duela adierazten du bilbotarrak, aipatzen du «munduan mila miloika persona daude[la] gutxi jaten dutenak» eta aldarrikatzen du, egoera horretan, «behekoak bere burrukaldia hasten du[ela] goikoaren kontra». Ez zait kasualitatea iruditzen Aresti gazteak klase-borrokaren gaia ekartzea poesiaz ari delarik, hor kokatuko duela bere burua une oro, langile-klasearen aldean eta burgesiaren kontra, horixe izango delako bere «mandatua», oraindik argi adierazten ez badu ere.

Arestik ez du bere posizio etikoaren eta estetikoaren arteko alderik ikusten, harentzat poetak «bere burua saltzen duen momentuan bertan, poetatza abandonatuko» du. Horri lotuta, 1960ko hitzaldi hartan ezin izan zuen beste ideia bat aipagabe utzi: «Poeta da gizon bat egia maitatzen duena, egia hori hitzaren medioz esplikatzen eta kantatzen duena». Haren obra guztian etengabe errepikatuko da: poetak egia esan behar du eta azken muturreraino eraman behar du printzipio hori, idazteko eskua eta kantatzeko mihia moztu behar badizkiote ere, poetak ezin dio «inoiz / inola / inun» egia esateari utzi, *Harri eta herri* liburuko poema gogoangarri batean dioen bezala. Egia hori, ordea, ez da egia metafisiko bat, ez da poetaren iritzi pertsonala soilik, posizionamendu etikoari eta kontzientzia historikoari zuzenean lotutako egia bat da. «Nik ere / badut / nire egia, / eta bankero jaunarenak / bezainbat / edo baino gehiago / balio du», dio Arestik, eta argi uzten du egia bere ulerkera klase menderatzailearekin aurrez aurre eta, ondorioz, proletalgoaren ondoan kokatzen duela. Egia hori beraxe da langileen

kondizio alienatua seinalatzen duena, klase menderatzaileari eta haren lagunei «burjes» deitzen diena, «Dirurik eztagoen egunean / ezta / gizonik / erosi-ko» aldarrikatzen duen egia bera da. Arestiren egia, beraz, ez da berea soilik, proletalgo osoaren egia da, kontzientzia historiko bat eta etika kolektibo bat ditu aurrebaldintza. Hor dago haren politikotasuna.

Izan ere, bilbotarrak esana da «poesia / mailu bat / dela», edo, bestela esanda, politikoa izan daitekeela poesia. Arestik ideia hori konpartitu zuen Bertolt Brecht idazle alemaniarrekin, zeinaren obra ondo ezagutzen baitzuen eta lan batzuk euskarari ekarri baitzizkion aurrenekoz. Brechtek, bere proiektu artistikoaren oinarri batzuk esplikatu asmoz, dio berak nahi lukeen arteak *popularrak* eta *errealista* izan behar duela. Harentzat, horrek zera esan nahi luke, besteak beste: langile-masekin lerrotatzen den artea, haien posizioa hartu eta aberasten duena, ikuspegi sozial dominantea klase dominantearekin berdintzen duena eta hori agerian uzten duena. Bat datoz Brecht eta Aresti artearen mailutasunean: lanabesa da, alde batetik, burgesiak nahiko lukeen leku pribilegiatutik proletalgoaren eskuetara ekarria, eta arma, bestetik, sozialismo iraultzaileak egoki erabiltzen badu.

Ez dut nahi, inola ere, Brechten errealismoa edo Arestiren eredua hitzez hitz jarraitu beharrek kontsigna gisa ulertuak izan daitezen. Bi figura hauek berreskuratu nahi izan ditut gogorarazteko proletalgo iraultzailearen kontzientzia historikoak aplikazio artistikoak ere izan dituela, baita gure herrian ere, urrunegi joan gabe. Arte burgesaren izaera errotik zalantzan jarri eta langileen iraultzaren mesedetan ipini zuten euren ekoizpena osoki, edukitik hasi eta formaren gaineko eztabaidaraino. Hainbati zentzugabekeria irudituko zaio orduko artisten espiritu hori, zaharkitua geratu dela irudituko zaio. Burgesiak eta erreformismoak beti pentsatu izan du artearen eginbeharra beraiek sortu eta erreproduzitzen duten mundu anker hau edertzea dela. Egun-go proletalgo iraultzaileak, aldiz, kontrara pentsatu behar du: artea oraindik mailu bat dela sinetsita, badaki bere proiektu historikoa gauzatzeko bidean tresna beharrezkoa izango duela. /

ERREPORTAJEA

Palestinako bake kolonizatu

Testua eta irudia — Leire Regades

‘Bakea oparotasunerako’
deiturikoak, Donald Trumpek
Benjamin Netanyahuaren
babesarekin diseinatutako
plana, argi berdea emango dio
Zisjordaniako eta Jordango
bailara estrategikoko kolonia
israeldarren anexio formalari.

Donald Trumpek urtarrilean aurkeztu zuen Ekialde Hurbilerako bake plan bat, ‘Mendeko Akordioa’ deitu ziona. Plana aldebakarrezt garatu zuten Etxe Zuriak eta Israelek, palestinarren ordezkaritzarik gabe. Ordutik, gero eta urrunago sumatzen da estatu arabiar baten etorkizuna. Proiektuaren mapa kontzeptual berriak abiapuntu modura jarduten du eta lurraldea birmarrazten du: Jerusalem bilakatuko da estatu israeldarraren hiriburu zatiezin, eta gainera, Zisjordania-ko kolonia juduak anexionatzea baimentzen du planak, nazioarteko zuzenbideak legez kanpokotzat jo baditu ere. Egun, 600.000 kolono israeldar bizi dira legez kanpoko 250 kokalekutan banatuta. Horiei leku egiteko, palestinarren 500.000 etxebizitza eta azpiegitura palestinar eraitsi dituzte 1967ko inbasio militarraz geroztik.

Koloniak C eremua deiturikoaren barruan daude, israeldar militarren kontrolpean; Cisjordania osoaren % 60 osatzen dute. Eremu horrek baieztatzen du Israelen proiektua ez dela okupazio militar bat, baizik eta sistema kolonial eta etniko iraunkor bat; sionisten ideologia eta praktikaren emaitza, Jordan ibaitik Mediterraneo itsasoraino judutar estatu eskusibo bat ezarri asmo duena. Hala, plan berriak Israelen subiranotasuna inposatzen du Jordango ibarreraino. Azken hori gune estrategiko bat da Israelentzat eta presentzia militar handia du, eta mugaldea ezarri ahalko luke, Jordaniarekin muga eginez.


Palestinarrei dagokienez, batetik, entitate burujabe bat esleituko lieke planak, baina hurrentasun territorialik gabe. Bestetik, 50.000 dolarreko inbertsio handiak egiteko promesa egin die. Estatu palestinarraren hiriburua Jerusalem kanpoaldean egongo litzateke, Israelen subiranotasunaren pean geratuko bailitzateke hiri santua. Donald Trumpen arabera, bere proposamena «aukera historikoa da palestinarrak estatu independente bat lortzeko; palestinarrak bakea izateko azken aukera izan liteke». Agintariekin eta herri pales-



tinarrak ‘Mendeko Akordioa’ delakoari emandako erantzuna argia eta sendoa izan da, bai komunikatu ofizialetan, baita anexioaren iragarpenetik piztu diren manifestazioetan ere: «Palestina ez dago salgai».

Estatu sionistak *de facto* anexionatu ditu Palestinako lurrak, eta pixkanaka-pixkanaka garbiketa etnikoa ezarri du, inpunitate osoz eta nazioarteko komunitatearen pasibotasunaren aurrean. Izan ere, komunitate horrek ez du inoiz ekintza loteslerik gauzatu estatu sionistaren aurka, ezta anexioaren iragarpenaren aurrean ere, «nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipioak» urratzeagatik komunikatuen bidez hainbat kondena ezartzeaz harago. Trump Administrazioak anexio israeldarrari emandako babesa agerikoa da. 1967ko gerraz geroztik, Israelek Ekialdeko Jerusalemen anexio formal irimotu zuen, eta 1981ean, Siriako Golango Gainak beretu zituen. Amerikako Estatu Batuak dira, Trump Administrazioaren pean, nazioarteko komunitateak legez kanpokotzat jo zituen ekintza

[...] Israelen proiektua ez dela okupazio militar bat, baizik eta sistema kolonial eta etniko iraunkor bat; sionisten ideologia eta praktikaren emaitza, Jordan ibaitik Mediterraneo itsasoraino judutar estatu eskusibo bat ezarri asmo duena



horiek onartu zituzten bakarrak.

«Anexioak arreta desbideratzen du Israelek aurretik egindako krimen guztietatik», salatu du Jaldía Abubakrak, Madrilén bizi eta BDS (*Boycott, Divestment and Sanctions*) mugimenduko kide denak. Zentzu horretan, ezinezkoa da anexioa gertakari isolatu gisa aipatzea, prozesu jarraitua da, gertaera burutuen eta lurraldearen bereganatze progresibo baten estrategia bat, duela hamarkada batzuetatik martxan dena. Palestinarrak bat datoz plan berriaren definizioa osatzeko orduan: hamarkadetako okupazio eta kolonizazio israeldarra formalizatzen du. «Israelek anexio formalak edo *iure* gehigarriak gauzatu edo ez, palestinarrak alde guztietan aurre egiten dioten oinarri erreala da israeldarren erregimena; kolonizazio, okupazio eta apartheid ardatz dituena, eta gure askatasuna eta autodeterminaziorako eskubidea ukatzen

“

[...] ezinezkoa da anexioa gertakari isolatu gisa aipatzea, prozesu jarraitua da, gertaera burutuen eta lurraldearen bereganatze progresibo baten estrategia bat, duela hamarkada batzuetatik martxan dena [...] hamarkadetako okupazio eta kolonizazio israeldarra formalizatzen du

Trump eta Netanyahu-
ren «bake planaren» mapa

Palestinako Lurralde Okupatuan, palestinarrak eta kolono israeldarrak bereizten zituzten lege-sistemak ezarri zituzten, eta palestinarren baliabide naturalen gaineko kontrola hartu zuten. Hori guztia, kontrol- eta errepresio- aterki baten pean egituratuta, eta baimen-sistema batek artikulatuta

dizkiguna», dio Abdulrahman Abu-nahelek, BDSren Palestinako Batzorde Nazionaleko koordinatzailea Gazan.

Palestina kolonizatua izan da 1948an Israelgo estatua sortu zenetik -Nazio Batuen Erakundeak Palestina-ren banaketa plana gauzatu ondoren-. Lurraldea 165 lurralde-unitatetan edo enklabetan banatu zuten, elkarren artean bereiziak, eta legez kanpoko kokalekuek, kolonoek erabiltzeko mugatutako errepideek, *checkpoint*ek eta banantze Harresia deiturikoak inguratuta. Palestinako Lurralde Okupatuan, palestinarrak eta kolono israeldarrak bereizten zituzten lege-sistemak ezarri zituzten, eta palestinarren baliabi-

de naturalen gaineko kontrola hartu zuten. Hori guztia, kontrol- eta errepresio- aterki baten pean egituratuta, eta baimen-sistema batek artikulatuta, zeinak baimendu egiten dituen edozein mugimendu, zuzeneko indarkeria eta etengabeko jazarpena, etxeen eraispena, atxiloketa arbitrarioak eta administratiboak (baita adingabeen kasuan ere), torturak, eta beste hainbat oinarrizko eskubideren urraketa. Apartheid sistema hori 1993ko Osloko Akordioen arabera palestinarren kontrolpean egon beharko luketen eremuetan ere ezartzen da.

Oslok «bi estaturen konponbidean» oinarritutako bake plan baten ibilbi-

Etorkizuneko estatu palestinarraren bideraezintasuna ez dago soilik lurraldeen arteko hurrentasun ezarekin lotuta, aitzitik, pauperizatuta dagoen eta Israelekiko dependentea den ekonomiak ere badu eragina

dea markatu zuen, estatu palestinar bat hitzemanetz. «Segregazio sistemak bantustanizatzeraz kondenatzen du Palestina, ustezko subiranotasun palestinarreko eremuen artean hurrentasunik ezin izatera, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzen duen marko batean» azaldu du Itxaso Dominguezek, Ekialde Hurbilean espezializatutako analista, *Anexioaren 5Wak* azterlanean. Etorkizuneko estatu palestinarraren bideraezintasuna ez dago soilik lurraldeen arteko hurrentasun ezarekin lotuta, aitzitik, pauperizatuta dagoen eta Israelekiko dependentea den ekonomiak ere badu eragina. Okupazioak ahuldu egiten du Palestinako ekonomia oparo bat izateko edozein ikuspegi, eta milioika langile palestinar jaurtitzen ditu prekarietatera, langabeziara eta azpienplegura, Israelen edo legez kanpoko kokalekuetan.

SEGREGAZIO-AZPIEGITURAK

Israelgo agintariak baieztatu duteenez, subiranotasunaren hedapenaren

SIONISMOAREN GEOPOLITIKA

XIX. mendean sionismoa sortu zenetik, eta bere oinarriak 1916an, Balfourreko Adierazpenaren bidez, Palestinako Mandatu britainiarrak emandako babesari esker finkatu zirenetik, Palestina historikoan herri juduarentzat «etxe nazional» bat ezartzeko plana hasi zen, gaur egun etenik ez duena. Plan sionistaren helburu nagusia 'Israel Handiaren' subiranotasun osoa aldarrikatzea eta kolonizatzea da, Mediterraneo itsasotik Jordan ibairaino lehenengo, eta lurralde palestinaretik harago hedatuko litzatekeena, Eufratesetik Niloraino, Bibliaren arabera.

II. Mundu Gerra nahasiaren erdian, Erresuma Batuak Palestinatik alde egitea erabaki zuen, eta Nazio Batuen Erakundearen esku utzi zuen lurraldeari buruzko akordio bat lortzeko lana, modu horretan, tentsioaren gorakadaren ondorioak berehalakoak zituen gatazkari konponbide bat emateko. Momentu horretan, eta Britainia Handiko Administrazioaren datuen arabera, Palestinako juduen populazioa % 30ekoa zen.

Nazio Batuen banaketa planak, 1947an, Palestina historikoaren lurraldearen % 55 judu bihurtzeko irizpena eman zuen. Horrela hasi zen milaka palestinarren garbiketa etnikoa, 750.000 inguru bizitza osorako erbestera kondenatuak izan zirelarik; Israelgo estatua jaio eta amets sionista hasi zen, handik gutxira, lurraldea arabiar biztanleez «husteko» estrategia militarra definituko zuena. Israelek 1967ko Sei Eguneko Gerran lortutako garaipenak, Gazako Zerrendaren eta Zisjordaniaren kontrola ekarri zuen, kolonizazio prozesua are gehiago bizkortuz.

Apartheid eta kolonizazio politika sionisten ostean, eta aurreneko Intifadari amaiera emateko, 1993an Osloko Akordioak sinatu ziren, Zisjordania hiru sektore administratibotan banatzea jaso zuen ustezko bake prozesua: A eremua (Palestinako Aginte Nazionalaren kontrol zibil eta polizial osoarekin), B eremua (Palestinako kontrol zibilarekin eta Israelgo kontrol militarrekin) eta C eremua (Israelgo kontrol zibil eta militar osoarekin). Sistema horretan, biztanleek eskubide desberdinak dituzte edo ez dute eskubiderik, herritartasunaren, bizilekuaren eta afiliazio etniko-erlijiosoaren arabera. Osloren arabera, Israelek C eremuaren kontrola palestinarek utzi behar zien gutxika-gutxika, palestinarek estatu baten eraikuntzan aurrera egiten zuten bitartean. Ez zen horrelakorik gertatu. Aldiz, proiektu sionistak bere bidea jarraitu zuen apartheid politiken bidez, Zisjordaniako hiri eta herrixkak elkarren artean isolatutako uharte bihurtu dituztenak, lurralde hurrentasuna eta, beraz, etorkizuneko estatu palestinarraren bideragarritasuna eragotziz.

Gazan, Ariel Sharonek zuzendutako Israelgo gobernuak bere estrategia aldatu zuen 2005ean, koloniak desegin eta israeldarren okupazio indarrak Gazako Zerrendaren inguruan hedatuz. Ilan Pappé irakaslearen arabera, Israelek Gaza «getizatu» zuen, Erdi Arokoa zirudien setio osoa ezarriz. 2005etik, Israelek dozenaka eraso militar egin ditu Gazan setiatutako 2 milioi palestinarren aurka, tartean, gerra krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak izan ziren hiru eraso militar masibo 2008-2009ko neguan, 2012ko udazkenean eta 2014ko udan.



JALDIA ABUDAKRA

«Proiektuak Jerusalem eta Zisjordania bereizi nahi ditu 'Mendeko Akordioari' bide emateko. Helburua Jerusalem palestinarrez hustea da»

Osloko Akordioek [...] atea irekitzen zioten «bi estatuen konponbideari». Testuak, esplizituki, debekatu egiten zituen alde bakarreko ekintzak eragile sinatzaileetako baten aldetik, nahiz eta Israelek, legez kanpoko asentamenduen eraikuntza biderkatu zuen



eraginpean egongo liratekeen palestinar gehienek ez lukete israeldar herri-tartasunik izango; hori dela eta, Itxaso Dominguez analistak uste du Israelek komunitate palestinarrek bizi ez diren eremuetara mugatu dezakeela anexioa ingeniaritza demografikoko ekintzen bidez, eta, beraz, Israelek tokian bertan dituen azpiegiturak indartu beharko dituela.

Soilik kolonoei bideratutako errepide-sistemek, kokaguneen inguruko hesiek, tiro eremuek eta 500dik gora zenbatzen diren itxiera oztopo edota *checkpoint*ek murriztu egiten dute, gaur egun, Palestinan mugitzeko askatasuna. Palestinar gehienei Ekialdeko Jerusalemera sartzea ukatzen zaie, eta gero eta zailagoa da Zisjordanian barrena bidaiatzea, bereziki iparraldetik hegoaldera eta A, B eta C eremuen artean.

‘Mendeko Akordioa’ deiturikoak «bide azkar» bereiziak eta azpiegiturak eraikitzea aurreikusten du enklabeen artean, hala nola, «tunelak eta pasabide goratuak». Enklabe horiek, uhartetxo edo bantustan modura, Palestinako lurraldea osatuko dute Israelek xurgatutako eremu eta kokalekuen artean. Era berean, Gazako Zerrenda eta Zisjordania, orain arte elkarrekin lotuta ez daudenak, lotuko dituen lurpeko tunel bat eraikitzea aurreikusten da.

Legez kanpoko kokaguneak Jerusalemekin lotu eta segurtatuko dituen tranbiaren eraikuntza, anexioaren kontsolidazioaren parte da. Jaldia Abubakrak honela azaltzen du: «Proiektuak Jerusalem eta Zisjordania bereizi nahi

ditu ‘Mendeko Akordioari’ bide emateko. Helburua Jerusalem palestinarrez hustea da». Abdulrahman Abu-nahelek, Gazan BDSren Palestinako Batzorde Nazionalako koordinatzaile denak, «korporazio konplizeen aurka kanpainak areagotzeko» deia egin du, tartean, CAF euskal konpainiari zuzendutako kanpaina, zeinak enpresari eskatzen dion «amaitutzat ematea Israel eta Jerusalem lotzen dituen tren arinaren (nazioarteko zuzenbidea urratzen duena) hedapenean duen parte-hartzea».

BI ESTATUREN KONPONBIDEAREN TRANPA

Osloko Akordioek, 1993an sinatutakoak, atea irekitzen zioten «bi estatuen konponbideari». Testuak, esplizituki, debekatu egiten zituen alde bakarreko ekintzak eragile sinatzaileetako baten aldetik, nahiz eta Israelek, legez kanpoko asentamenduen eraikuntza biderkatu zuen. Palestinarrek «Osloko tranpa» gisa gogoratzen dute hura; izan ere, hitzemandakotik oso urrun, okupazio eta kolonizazio sionistak ez dute etenik izan ordutik. «Palestinarrak negoziazioetara behartu dituzte orain arte, euren fede ona eta prestasuna erakusteko, euren estatua izatera zuzendutako lurraldea pixkanaka irentsia izaten ari den bitartean», adierazi du Itxaso Dominguezek.

Nolanahi ere, Palestinako herriak eztabaidatu eta erabaki beharko luke zer etorkizun nahi duen baldintza berdinetan, eta ez orain arte bezala

[...] 1993an Osloko Akordioak sinatu ziren, Zisjordania hiru sektore administratibotan banatzea jaso zuen ustezko bake prozesua [...] biztanleek eskubide desberdinak dituzte edo ez dute eskubiderik, herritartasunaren, bizilekuaren eta afiliazio etniko-erlijiosoaren arabera

aldebakartasunez, egingo diren hurrengo negoziazioetan. «Juduentzat, kristautentzat eta musulman palestinarrentzat eskubide berdinak dituen estatua eskatzen dugu. Herrialde hau Palestina deitzen zen, gaur egun Palestina deitzen da eta Palestina deituko da, Mohamoud Darweish poetak esan zuen bezala», dio Jamil Al-Bargouti Front Line Defenderseko giza eskubideen defendatzaileak. «Konponbide justu eta baketsu orok palestinar herri osoaren eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu: diasporan, 1967an okupatutako lurraldean eta Israelen dauden herritar palestinarrentzat. Gure askatasuna eta eskubideak lortzeko irtenbiderik onena, palestinar guztiek demokratikoki erabakitakoa baino ezin daiteke izan», adierazi du Abdulrahman Abunahelek.

ANEXIO-PLANA, AIREAN

Zisjordaniaren % 30 bereganatzeko plana uztailaren lehenean gauzatzea bazen ere, azkenean eta oraingoan, Netanyahu ez du Donald Trumpen oniritzia jaso. Desadostasunak daude Etxe Zuriak marraztutako maparen inguruan. Izan ere, orain kanpoan geratzen diren eta juduentzako garrantzitsuak diren leku gehiago sartu nahi lituzke Netanyahu, hala nola, Samalia eta Siloko antzinako eskualdeko Bet El, Israel biblikoko lehen hiriburua. Nola nahi ere, AEBak kezkatuta daude eskualde horretako babes faltagatik; hain zuzen, Jordaniak eta Egiptok nahiz Persiar golkoako monarkiek ez dute onztat eman plana. Netanyahu, ordea, presaka dabil. Trumpek azaroan hauteskundeak galtzen baditu, itxita geratuko da anexioaren aukera, Trumpen aurkari Joe Bidenek adierazi duenez.



2005etik, Israelek dozenaka eraso militar egin ditu Gazan setiatutako 2 milioi palestinarren aurka, tartean, [...] hiru eraso militar masibo



«Anexioa berrartzen bada, jendeak kaleak hartuko dituen une bat egongo da. Palestinako buruzagitza berria agertuko da herri oinarrietatik, Intidada berria gidatuko duena», aurreikusi du Jamil Al-Barghouti Front Line Defenderseko kideak. Palestinako gizarte zibilak berriki egindako adierazpen batek, nazioarteko komunitateak Israel zigor legalak, zehatzak eta berehalakoak ezartzea eskatzen du, indarrean dagoen anexioari, legez kanpoko okupazio militarri eta arraza-bereizkeriari lotutako apartheid erregimenari, segregazioari eta lurralde-hedapenari erantzuteko. «BDS mugimendu globalak erakutsi du Israelen aurkako erresistentziarako baliabiderik eraginkorrenetako bat dela, baita nazioarteko elkartasun modurik eraginkorrena ere», adierazi du Abdulrahman Abunahelek.

Aldiz, azkenean anexioa gauzatzen ez bada, «nazioarteko komunitateak ez luke ekintza eza garaipentzat hartu behar», azpimarratu du Itxaso Dominguezek, anexioa okupazioko hamarkaden, gizateriaren aurkako krimenen eta nazioarteko zuzenbidearen urraketen formalizaziozat jotzearen ildotik. Era berean, Dominguezen esanetan, Palestina historikoan gerra krimenen ikerketa bultzatu beharko luke nazioarteko komunitatearen erantzukizunak, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren aurrean; baita Palestinako estatuaren balizko aitortza bat ere, sinbolikoa izango ez litzatekeena. BDS mugimenduan, Abdulrahman Abunahelek azpimarratu du beharrezkoak direla blokeo militarra eta boikota, ez soilik ekonomiaren esparruan, baita herrialdeko arlo akademikoan, kulturalean, kirolean eta politikan ere. /

GAZTEAK KRIMINALIZATUZ LANGILERIA MAKURRARAZTEN

Testua — Ane Ibarzabal



Ekainaren 19an Diputatuen Kongresuak lege-proiektu bat onartu zuen: *121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia*. Lege-proiektu horretan haur zein gazteekiko biolentzia forma ezberdinak zerrendatzen eta horiekiko erantzuna gogortzen da, oro har. Baina 23. artikulua jarri nahiko nuke jopuntuan gaurkoan, horrela baitio:

Artículo 23. Prevención de la radicalización en los niños, niñas y adolescentes.

Las Administraciones Públicas competentes adoptarán las medidas de sensibilización, prevención y detección precoz necesarias para proteger a las personas menores de edad frente a los procesos de radicalización y adoctrinamiento que conducen a la violencia en cualquier ámbito en el que se manifiesten, (...).

Azken urteotan, Europar Batasunaren baitako erakunde ezberdinak buru-belarri ari dira gizartearen masa zabalari ohartarazi nahian gazteriarren erradikalizazioa igotzen ari dela, eta horren aurrean, esku hartzeko beharra azpimarratzen ari dira^[1]. Esku-hartze lerro horrek bat egiten du Europar Batasunaren gainbehera ekonomikoarekin, eta hortaz, bloke geopolitiko gisa izandako dekadentziarekin. Zentzu horretan, PSOE-Podemosen gobernuak proposatutako lege-proiektu honek badu funtzio bat eta badu izateko arrazoi bat ere.

Gehienontzat oharkabea pasatu dira artikuluhonen existentzia eta aurkezpena. Izan ere, artikuluhau aurkezteko erabili duten marko teorikoak zein



testuinguru orokorrak, bere zentzua diluitzen dute erabat. Artikuluaren interpretazioa lege-proiektuak aurkeztu duen marko teorikoaren baitan jasotzen bada, zaila da nerabeak babesteko asmoa besterik ez duen artikulua gisa baino zerbait gehiago bailitzan interpretatzea. Esaten ari naizena ulertzeko: 150 artikulua inguruko lege-proiektu bat litzateke aurkeztutakoa, non gazteek eta haurrek pairatzen dituzten biolentziaren forma arrotzenak aipatzen diren eta, oro har, hauek biktima diren egoeren erregularizatze eta prebentzio saiakerak irudikatzen diren; hori da ideia orokorra, eta hori da ikuspuntua berau ulertzeko ia testu guztian zehar. Testuinguruak zeharo eragiten du egoera edo auzi baten interpretazioan, eta, kasu honetan, legearen inplikazio politikoak oharkabea igarotzen dira; hau da, gazteon kriminalizaziorako urrats argi bat dena, ez da hain erraz hautematen.

Lege-artikuluaren testuinguruaz gain, erabiltzen diren terminoen kontzeptualizazioa ere oso bestelakoa da, dugunarekin alderatzen badugu. Izan ere, Europako Komisioak *erradikalizazio* terminoa honela definitzen du: «instituzio sozial eta politikoen sakoneko aldaketa eta berregituratzearekiko defentsa edo konpromisoa, zeinak *status quo*a sostengatzen den muga tradizionalak eta prozedurazkoak gainditzeko desira inplikatzeko duen»^[2]. Termino horren baitan estatuarekiko edo burgesiarekiko kontrakotasunean kokatzen den ia edozein adierazpen barne biltzen da. Berba definitzeko orduan, duela urte batzuk oinarrizkoak ziren kontzeptuak ezabatuz joan dira, hala nola, biolentziaren erabilera edo antolakuntzaren premisa, eta gaur, kritikotasunaren adierazpen oro barne hartzen du erradikaltasunaren kontzeptuak.

PAUL TREVOR
ARGAZKILARIAREN IRUDIA
Like You've Never Been
Away argazki liburua
parte. 1970 Liverpool-eko
auzo pobreen eguneroko
bizitza irudikatu zuen.



TISH MURTH (1956-2013) ARGAZKILARIAREN IRUDIA
Bere jaioterriko komunitateko, Elswikeko, jendearen eguneroko bizitza dokumentatu zuen. Tynesideko ontzigintzaren gainbeherak gogor kolpatutako eremu marjinatua izan zen.



Lege-artikulu honen existentziak, gaur-gaurkoz, bi eratara eragiten digula esango nuke: batetik, gazteen «erradikaltasun prozesu saiakerak» bultzatzen dituzten eragile edo antolakundeak zorrotzago zigortuko direla eta, bestetik, prozesuak eteteko esku-hartzeak latzagoak izango direla

Lege-artikulu hau diziplinatze sozial zorrotzagoak inposatzearen gelaurrea da, etorkizuneko proletalgoa makurrarazteko beste pauso bat

Erradikaltasunaren kontzeptua definitzerakoan biolentziaren erabilera determinantea ez bada ere, iruditegi sozialean biolentzia iradokitzen du. Horrek, halabeharrez, biolentziaren inguruko hausnarketa bat ekarri beharko luke. Izan ere, *biolentzia* terminoa guztiz moralala da. Testuinguru sozial eta eduki etikoaren bidez sailkatzen da ekintza bat biolento gisa, eta marko horiek burgesiak inposatzen ditu, testuingurua zein edukia. Zentzu hone-tan, *status quoa* kolokan jartzea biolentzia litzateke, burgesiaren ongizatea eta existentzia bera kolokan jartzen baititu, gizartearen masa zabalaren aurkako ekintza gisa nabaritzen dena, orokorrean.

Erradikaltasuna, kontzepzio orokorrean, arazo bat da gizartearentzat. Problematikoa denaren kontsentsu horrek burgesiaren, eta era berean, estatua-ren esku-hartzea errazten du, eta arazoaren dimentsioaren pertzepzioa handituz joan ahala, onartzen den esku-hartzearen gogortasuna ere handiago bilakatzen da. Horrela ba, gazteriaren baitan erradikalizazio prozesu bat ematen ari denaren ideia hedatu da eta prozesu instituzionalizatu baten bidez gazteriarekiko kriminalizazioa garatu da. Modu publiko eta zabalean, gazteriaren aurkako oldarraldia ematen ari da, adostasun sozial batek baimendu duena. Estatu aparatuek, gazteriaren irudi zehatz bat ekoiztera jarri dituzte haien instituzio kulturalak, iritzi bat sortzera: hezkuntza zentroetan irakasgai eta materia zehatzak emanez, kriminalizazioaren aurkako ikastaroak emanez, gizarte hezitzaileen esku-hartzeak bideratuz, komunikabideetan hizkuntza jakin bat erabiliz, telesailetan estereotipo batzuk erreproduzituz... Horrek guztiak iritzi eta kontzientzia bat sortzen ditu jendartean, horrelako legeen inposaketak baimentzen dituzten kontzientziak, hain zuzen.

Lege-artikulu honen existentziak, gaur-gaurkoz, bi eratara eragiten digula esango nuke: batetik, gazteen «erradikaltasun prozesu saiakerak» bultzatzen dituzten eragile edo antolakundeak zorrotzago zigortuko direla eta, bestetik, prozesuak eteteko esku-hartzeak latzagoak izango direla. Lehenari dagokionez, itxuraz berehalako inplikaziorik ez baldin badu ere, indar korrelazioan posizioak ira-

bazten joan ahala, gazte antolakundeen zein ikasle antolakundeen jarduna, esaterako, zeharo kriminalizatuko da, militantzia zein interpelatzen den subjektuaren zaurgarritasuna aitzakia gisa erabili-ta. Horrek, ezinbestekoa zaionean, potentzialitate iraultzailea itzaltzeko balioko dio burgesiari. Bigarren ideari jarraiki, erradikalizazio zantzurik du-ten nukleoak nahiz orokorrean subjektua, hau da, gazteria, erradikalizatzen hasten denaren ideia he-datuz jarraitzen baldin bada, prozesu horiek etete-ko, esku-hartze eta errepresio prozesu gogorragoak abiatuko ditu burgesiak. Arestian esan bezala, sub-jektu bat kriminalizatzeak, diziplina-prozesu bat baimentzen du subjektu horrekiko, eta oinarrizko eskubide politiko zein zibilak ukatzea ahalbidetzen du. Hori guztia, gainera, askotan aipatu dugun pre-misa ahaztu gabe: gazteriarengan esku hartzeak etorkizuneko langile klasea ezaugarritzea esan nahi du. Horregatik, lege-artikulu hau diziplinatze sozial zorrotzagoak inposatzearen gelaurrea da, etorkizu-neko proletalgoa makurrarazteko beste pauso bat. /

OHARRAK

[1] «Parisko Deklarazioa», 2015eko martxoak 17; «Marco Estratégico Educación y formación 2020» ET2020, Erasmus+ programa 2014-2020 edo INJUVEK 2018an CITC0rekin batera eskainitako ikastaroak dira horren adibide.

[2] «Radicalism is the advocacy of, and commitment to, sweeping change and restructuring of political and social institutions which involves the wish to do away with traditional and procedural restrictions which support the status quo» (European Commission, 2017: 12)



PROLETARIO IZAERA

K. MARX ETA F. ENGELS.
LA SAGRADA FAMILIA, 1844

«No se trata de saber lo que tal o cual proletario, o aun el proletariado íntegro, se propone momentáneamente como fin. Se trata de saber lo que el proletariado es y lo que debe históricamente hacer de acuerdo a su ser. Su finalidad y su acción histórica le están trazadas, de manera tangible e irrevocable, en su propia situación de existencia, como en toda la organización de la sociedad burguesa actual»

Testua **Ainhoa Vidal**
Irudia **Zoe Martikorena**

Aurreko sarreran, emakume langileoi zehazki eragiten digun auzi sozial kapitalistaren aurrean politika antagonista bat garatzeko beharrezana azaltzea nuen helburu. Abiapuntutzat ideia orokor batzuk eta eskema orokor bat idatzita utzi nahi izan nituen, beharbada, egunen batean, teoria eta praktika politikoaren garapenaren lekuko, bertara itzuli eta ideia eta kontzeptuok ere garatzen jarraitzeko. Hala ere, aurrekoan airera jaurtitako ideioek emakume langileon askapen bidean abiapuntu egokia direla uste dudanez, horiek esateko dutenaz zertxobait gehiago luzatuko naiz hurrengo sarreretan.



Aipatu nuen «potentzial iraultzailea duen subjektu unibertsala langile klasea dela» eta, segidan, «sektore kaltetuenen bizi baldintzen defentsarako mekanismoak sortzea berehalako eginbehar gisa izango duen minimoetan oinarritutako programa baten beharrezana» iradoki nuen. Gaurko artikuluan, orduan esandakoa uler dadin, emakume langilearen klase baldintzaz mintzatzea gustatuko litzaidake, bere zapalkuntzaren forma kulturala bere funtzio ekonomikoak edo, kapitala-lana harremanean betetzen duen posizioak baldintzatzen duela azaltzeko.

Datu estatistikoei gainera errepikatuz gero, ohar gaitzezke, bizi baliabideen eskasiari loturiko indize gehienetan, emakumeen portzentajeek batez besteko portzentajea gainditzen dutela: INEren datuen arabera, Espainiako Estatuan pobrezia arriskuan dagoen biztanleriaren tasa lehendik altua izanik ere (% 25 inguruan), azken 10 urteetan % 4,1 hazi da emakumezkoen kasuan; gizonen kasuan, aldiz, % 2. EUSTATEko datuei begiratuta, EAEko emakumeen % 8,5 mantenu pobrezian bizi zen 2018an^[i], hau da, oinarritzko beharrezan materialei aurre egiteko baliabide ekonomikoaren faltan; batez besteko errenta pertsonalari dagokionez, EAEn, 2016an, emakumeena % 18 baxuagoa zen gizonekoena baino. Enpleguari

dagokionez, soldata baxuak eta lanaldi partziala dira nagusi emakume proletarioek betetzen dituzten sektore feminizatueta lan-baldintzetan^[ii]. Biolentzia matxista kasuen joera ere beherakorra izatetik urrun dagoela nabari da egunkariak zabaltzen ditugunean, beraz, berau kapitalismoak planteatzen dituen arazo larrien artean kokatzea ez litzateke disparate bat izango^[iii]. Begirada azkar soilez antzeman dezakegu, hortaz, gure errealitate miserable honek garrasika aldarrikatzen digula mekanismo eraginkorren beharra, forma oso anitzetan gauzatzen den biolentzia honek norma kultural izateari utz diezaion.

Baina tresnok garatu ahal izateko ez gaitzen azaleko begiradan soilik geratu, datuok ez baitiote kapitalismoarengandik apartekoa den sistema ideologiko bati erantzuten, ez bada kapitalaren metaketarako emakume langilearen zapalkuntzak betetzen duen egiturazko funtzioari: lan-indar femeninoa debalututa agertzea eta emakume langilea (beste sektore batzuekin batera) prekarietate baldintza aurreratuenen lehen lerroan dagoen subjektu sozioekonomiko izatea^[iv], besteak beste. Hau guztia, noski, emakume langileon gutxiespen soziala zilegi egiten duen lan banaketa sexuala oinarri duela, kapital metaketaren beharrak aldatu ahala, formaz aldatzen doana. Esan genezake azken hamarkade-



“

Emakume langileak bere menderakuntza egoerara kondenatzen duen gizarte burgesa suntsitzeko potentzialitate iraultzailea dauka subjektu proletario gisa, baldin eta horrela eta horretarako antolatzen bada

tatik hona, emakume langileon kontrako ofentsiba burgesak lan-indarraren feminizazio baten forma eta emakume langilearen bizi baldintzen narriatze baten itxura hartu duela. Ni ez naiz izango emakume langilearen auziaz gain, emakume burgesei edo burges txikiei eragiten dien aparteko auzi femeni-norik existitu daitekeela ukatuko duena; ordea, esan nahi dudana da, inguruari pixka bat tentuz begiratzeari ez dagoela emakume langileoi eragiten digun zapalkuntza klase zapalkuntza dela ohartzeko. Eta horrela izanik, emakume langileari eragiten dion auzi femeninoa –nolabait deitzearren– haren proletario izaerak eragiten diola.

Itzul gaitezen, momentu batean, aipatutako lehenengo esaldira. Proletalgoa kapitalismoaren produktua da, eta, horrenbestez, diogu subjektu unibertsal eta potentzialki iraultzailea dela, mundu guztian existitzen delako eta kapitala-lana harremnaren produktu gisa interes berbera duelako. Errealitate sozialean langile klasea interes kontrajarriak balitu bezala agertzen da, baina aditzari erreparatzen badiogu, agertu ez da izan, eta langile klase globala etsaiaren boterea indartzen duen dinamika sozialean parte hartzera behartuta dagoenez, bere etsaiarekiko duen bizi dependentziak ezaugarritzen duela ulertuko dugu, botere materialik eta askatasun politikorik gabe ageri baita munduan. Baina menderakuntza ekonomiko horren baitan zapalkuntza forma desberdinak gertatzen direla jakin badakigu, klase menderakuntzak dituen azaleratze forma desberdin bezala edo, aukera desberdintasun eta diskriminazio forma ezberdinak bizi dituzten subjektibitate sozial desberdin bezala.

Esandakotik bi ondorio atera ditzakegu: alde batetik, aukera desberdintasunaren oinarria zein berdintasuna lortzeko ezintasuna proletario izaera honek azaltzen duela eta, bestetik, emakume langileak bere menderakuntza egoerara kondenatzen duen gizarte burgesa suntsitzeko potentzialitate iraultzailea daukala subjektu proletario gisa, baldin eta horrela eta horretarako antolatzen bada. Mugimendu sozialista indartsurik gabe, ordea, proletalgoa subjektu ekonomiko bezala existitzen bada ere, ez da bloke politiko eta kultural gisa errealitate sozialean ageri. Bere egoera iraultzeko gai den indar sozial gisa ager dadin, ulermen eta ekinbide marko propioa dituen subjektu politiko gisa eraiki behar da. Bestela, bere egoeraren aurrean erreakzionatzen ez duen bitartean edo erreakzioa erantzun espontaneoetara mugatzen duen bitartean, proletalgoa baldintza miserableetan bizitzera ohitzea beste aukerarik ez duten pertsonen multzoa izango da, kapitalismoaren harreman forma lehiakor eta era-

sokorrak bere artean erreproduzitzen jarraituko duena eta ez duena bere interes komun jakitun izan gabe gizartearen etorkizuna bere eskuetan hartzeko hauturik egingo.

Emakume langileon egoera aldatzeko urgentzia politikoa, hortaz, proletalgo honen kontzientziaren berregituraketan aurki dezakegu, haren forma kultural eta politiko baten berregituraketan, hain zuzen ere. Norabide horretan ahalko baititugu antolatze gure borrokak, gaurko baldintzekin eta gaurko beharren arabera. Eta, honezkero, hasieran aipatutako bigarren ideia heldu gara: zergatik da lehen-tasunezkoa emakume proletarioen bizi baldintzen defentsarako mekanismoak sortzea? Bada, alde batetik, hauek narriatzen dituen ofentsiba burges bat abian delako eta ez dagoelako hauen defentsa erreala egingo duen beste agente politikorik (ez bada kontzientzia espontaneo burgesetik abiatuta kanpaina egiteko). Bestetik, botere propioa eraikitzeko berehalako beharrianetatik abiatutako borroka esperientziak beharrezko zaizkigulako; izan ere, antolatze oinarria zein gure oinarrien baliagarritasuna mahai gainean jartzen dute. Beharrian konkretuetatik abiatuta, behar horiek, norberarenak izatetik urrun, kolektiboak eta klasearekiko komunak direla ulertu eta klase unibertsal baten eraketarako aukera ematen dutelako, potentzian, objektibitate berri bat sortzeko abiapuntua izan daitezkeelako. Finean, emakume proletarioen bizi baldintzak hobetzeko borroka defentsiboez, iraultzaren bidez proletario izaera eraldatzeko jomugan kokatuta baldin badaude, klase dominazioaren printzipioa erasotzeko gaitasunak handitzeko baldintzak jartzen dituzte. /

OHARRAK

[i] Ziurtasunez jakiterik ez badut ere, esango nuke, bizi dugun testuinguruaren jakitun, aurtengo zifrak altuagoak izan daitezkeela.

[ii] Ikus <https://gedar.eus/ikuspuntua/nahiasantander/analisi-sozioekonomiko-laburra-ofentsiba-kapitalista-eta-emakumeen-proletarizazioa>

[iii] Ongi aztertu beharko litzateke ea zergatik gertatzen den hau, ea krisi testuinguruak nola eragiten duen biolentzia marxistaren gorakada hipotetiko batean edo zein forma konkretu hartzen dituen honek egungo testuinguruan.

[iv] Ibíd. «Gazte-sektoreak ez ezik, emakume langileok ere erabili egiten gaituztela ofentsiba burgesarako tresna moduan, hots, etorkizuneko lan eta bizi baldintzak langile klase osora hedatzeko bitarteko gisa».

Txina vs AEBak: aldaketa al dator?

Testua
Eneko Carrion

Irudia
Zoe Martikorena

AEBek eta Txinak munduko hegemoniagatik duten gerra, zalantzarik gabe, azken hamarkadetako gertakari garrantzitsuenetako bat da. Eta borroka urrunetik badator ere, guda horren areagotzearen lekuko izaten ari gara azken urteotan, euren artean duten gerra komertzial etengabeak erakusten duen bezala. Urte askoan gorpuztu den prozesua izan da AEBen lidergoa. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, mundu mailako segurtasunaren bermatzaile bihurtzeari ekin zioten, zeinak, haien ustez, nazioarteko sistemen bidez gauzatutako botere estatubatuarrean oinarritua egon behar zuen. Botere horri eusteko, ezinbeste-

koa zen botere sobietarra geldiaraztea eta, horretarako, funtsezko bitartekoak izan ziren munduko diruaren eta botere militarren gaineko kontrola, batzuek keynesianismo sozial eta militarra deitzen dutena. Beste alderdi garrantzitsu bat Europaren berreraikuntza ekonomiko eta politikoa izan zen (eta beranduago Japoniarena), eta horretan, garrantzi handia izan zuen Marshall planak. Munduko ordena berri honen sorreran, zeregin erabakigarria izan zuten nazioarteko erakundeek. Bretton Woodseko akordioetatik, 1944an, AEBen mundu-ordenaren erakunde ekonomiko garrantzitsuenak sortu ziren, hain zuzen, Nazioarteko Diru Fun-

tsa eta Munduko Bankua [1]. 1949an Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (NATO) sortu zen, sobietarren aurka aliantzaren barruan. Europa indartsu baterako planak, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (1951) bezalako erakunde komunak sortzea barne hartzen zuen, 1957an Europako Ekonomia Erkidegoa bihurtuko zena [2].

Hegemoniak, Gramscik definitzen zuen bezala, talde nagusi batek duen botere gehigarriari egiten dio erreferentzia, gizartea bere interesen mesedera dagoen norabide batean mugiarazteko duen gaitasunaren arabera; eta ez soilik talde horren interesen mesedera, haren

Urte askoan gorpuztu den prozesua izan da AEBen lidergoa. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, mundu mailako segurtasunaren bermatzaile bihurtzeari ekin zioten [...]. Botere horri eusteko, ezinbestekoa zen botere sobietarra geldiaraztea eta, horretarako, funtsezko bitartekoak izan ziren munduko diruaren eta botere militarren gaineko kontrola

mendeko taldeek ere probetxugarritzat hartzen baitute aipatutako norabidea, interes orokorrago batekin bat etorriko bailitzan [1]. Bazirudien gizartea mugiarazteko gaitasun horretan ez zela norgehiagokarik izango, batez ere Sobietar Batasunaren erorketaren ondoren, baina ikusten ari gara nola Txinako eredia zalantzan jartzen ari den nagusitasun hori. Munduko 500 enpresarik handienak diru-sarreraren arabera neurtzen ditu *500 Ranking Globala* delakoak, eta 2019ko datuen arabera, AEBei gailendu zaie Txina (121 enpresa AEBek, eta 129 Txinak) [3].

Txinaren garapena ez da gauetik goizera lortu; aitzitik, 30 urte baino gehiagoko prozesua izan da. Atzerriko kapitalek inbertitu egin dute lan-indarrari dagokionez intentsiboak diren industria txinatarretan, esportatzeko helburuarekin, eta, ondorioz, «munduko fabrika» izena lortu du. Baina uste dugunetik urrun, Txina espezializatzen ari da kapitalari dagokionez intentsiboak diren industrietan, esaterako, komunikazioa edota aeronautika bezalako adarretan [4]. Prozesu horretan, estatuak funtsezko zeregina izan du ikerketan eta garapenean inbertitzaile handi gisa. Horren adibiderik onena da *Made in China 2025* izenpean aurkeztu zuen plana. Plan horretan, ildo estrategiko gisa ezartzen dira jabetza intelektualak, garapen iraunkorra, berrikuntza

eta enpresen fusioa eta berrantolaketa [5].

Sistema kapitalistaren etorkizuneko garapena ulertu ahal izateko azterketak eta ikerketak egitea funtsezkoa da indarrean dagoen ordena aldatu nahi duen edozein militanterentzat. Mario Trontik (1966) zioen bezala, «Kapitalaren garapen beharrak aurkitzea eta langile klasearen aukera subertsibo bihurtzea» dagokigu [6]. Zentzu horretan aztertu behar dugu bi potentzia horien arteko gerra komertziala.

Gerra komertzialak, hain zuzen, estatu batek, beste estatu baten edo estatu-talde baten inportazio-produktu baten edo batzuen sarrera mugatzeko egindako esku-hartzeei egiten die erreferentzia. Hori da ekonomia burgesak ematen duen definizio konbentzionala, azaleko analisi batera mugatzen dena eta inguratzen gaituen munduaren konplexutasuna ulertzeko balio ez duena. Merkataritza-gaietara mugatu beharrean, lehia horren oinarrian dagoena da mundu mailako hegemoniarengatik borroka, mundu mailako kapital-metaketaren erdigune bilakatzeko edo erdigune izaten jarraitzeko interesa besterik ez dena[4]. Erreportaje hone-tan, muga-zergen edo merkataritzaren gaira mugatu beharrean, borroka honetan funtsezko paperak duten hainbat elementu aztertuko dira.

Norgehiagoka hori behar bezala

aztertu ahal izateko, ezinbestekoa da ulertzea nola jarduten duen lehia kapitalistak. Kapitalista bakoitza gainbalioaren erauzketan harago joatera, aldagaiaren gaineko kapital konstantea handitzera eta ekoizpen-indarrak garatzen saiatzera bultzatzen duen indarra da lehia kapitalista [7]. Era berean funtzionatzen du herrialde bakoitzaren barruan nahiz nazioarteko merkatuan, lehiakortasunaren ikuspegitik indartsua denari lagunduz, ahularen kontura. [8] Ikusten dugun bezala, prozesu suntsitzaile eta antagonikoa da, kapitalisten arteko gerra pizten duena, non teknologiek arma gisa eta kapital-mugimenduek guda-eremu gisa jarduten duten. Marxek honela definitzen du borroka hau:

«Lanaren banaketa sozialak (gizarte burgesean) aurrez aurre jartzen ditu merkantzien ekoizle independenteak, eta haiek ez dute lehia ez den beste autoritaterik aitortzen, norbere interesen presioak haiengan eragiten duen hertsadura, animalien erresuman “guztiak guztien aurkako borrokak”, gutxi gorabehera, espezie guztien bizibaldintzak mantentzen dituen bezala [9]».

Borroka hori gordindu egin da irabazi-tasari eusteko zailtasunak areagotzean. 2008ko krisiaren amaieratik, metaketaren ahultasunaren lekuko izaten ari gara, eta Rolando Astarita bezalako ekonomialariek munduko ekonomiaren depresioa ekar zezakeela baieztatzen zutena, larriagotu egin da COVID-19aren agerpenarekin, eta horrek krisi berri baten aurrean jarri gaitu [10]. Potentzien arteko harremanak berrantolatzeko une bat sor dezake horrek, bloke geopolitikoen arteko indar korrelazioa aldatzeko aukera bat dena. [11]. Gerra hau hainbat eta hainbat esparrutan gertatzen ari da, eta horietatik, garrantzitsuenetako batzuk nabarmenduko dira hemen:

TEKNOLOGIA

Teknologiaren sektorean lehena

izateko borroka da, hain zuzen, lehia honetan ikusgarritasun gehien hartu duen alderdietako bat. 2012an, Txinako Huawei eta ZTE enpresak «segurtasun nazionalaren aurkako mehatxutzat» jo zituen AEBetako Ordezkarien Ganberako Inteligentzia Batzordeak. 5G teknologiarengatiko borroka funtsezko piezetako bat da marrazten ari den mundu berrian. Teknologia horrek asko handituko du konexio-abiadura, latentzia murriztuko du (webgunearen erantzun-denbora) eta konektatutako gailuen kopurua biderkatuko du. Aldaketa horiek ez dira ekoizpenaren eremura mugatuko, gure bizimodu eta ohiturak aldatuko dituzte. Gure hozkailuarekin edo garbigailuarekin konektatzea ahalbidetuko du 5Gak, baita ibilgailu autonomoen flotak zabaltzea edota ebakuntza kirurgikoak telelaguntza bidez egitea ere [12].

Horrek lotura estua du *Big Data*-ekin, eskala handiko datu-bilketa besterik ez baita. Informazio hori hainbat helburutarako erabiltzen ari da, inte-

Potentzien arteko harremanak berrantolatzeko une bat sor dezake horrek, bloke geopolitikoen arteko indar korrelazioa aldatzeko aukera bat dena



Adimen Artifizialak erabilera armamentistiko handia izan dezake, eta AEBek frogatu duten bezala, izugarrizko garrantzia du horrek bloke hegemoniko gisa nagusitzerako orduan. [...] AAk susmagarriak askoz azkarrago identifikatzeko edota arma autonomoak garatzeko gaitasuna ematen du, hala nola, drone armatuak, zeinak dagoeneko hedatuak izan diren Txinan, Israelen, AEBetan nahiz Erresuma Batuan

res pertsonalizatueta egokitutako eskaintzatik, osasungintzaren edo hiri adimendunen alorretaraino. Hauteskunde-politikan ere aurrerapauso nabarmenak ematen ari dira; izan ere, datu-bilketa horrek boto-emaile potentzialak segmentatzea eta mezua hartzailearen neurrira egokitzea ahalbidetzen du. Datuak balio handiko aktibo bihurtu dira, eta horren adibide da, 2019ko azken hiruhilekoan, Amazon multinazionalak bere diru-sarreraren % 70 datuak biltegiratzeko eta prozesatzeko zerbitzuaren bidez (Amazon Web Services) eskuratu izana [13].

Txinak garapen teknologikoan aurrera egin badu ere, AEBen gaitasunetik

urrun jarraitzen du adar askotan, zeinetan atzerriko kapitalaren menpekoa izaten jarraitzen duen. Horren adibide da Txinak garatutako patente gehienak ez dagozkiola goi-teknologiari, beste sektore batzuei baizik. AEBak garapen hori blokeatzen saiatu dira, esaterako, ZTE enpresari programa eta osagai estatubatarretarako sarbideak ukatuz, Iranen eta Ipar Korearen gain ezarritako zigor komertzialak hausteagatik [14].

Datuen bilketa masiboak lasterke-ta teknologiko honetako beste adar garrantzitsuenetako bat elikatzen du, Adimen Artifiziala (AA), datu horiek makina pentsalariak elikatzeko erabiltzen baitira eta ikasteko aukera ematen baitie. Teknologia honen erabilerak izugarriak dira, hondamendi naturalen iragarpenetik hasita, gaixotasunak diagnostikatzeko prozesuaren hobekuntzaraino. 2017an, Txinak estrategia bat aurkeztu zuen esparru horretan buru izateko, eta urtebete geroago, AEBek 2.000 milioi dolarreko partida bat esleitu zioten ikerketari. AAk erabilera armamentistiko handia izan dezake, eta AEBek frogatu duten bezala, izugarrizko garrantzia du horrek bloke hegemoniko gisa nagusitzerako orduan. 2018an Vladimir Putinek adierazi zue-nez, «Adimen Artifizialaren lasterketan lehena izatea lortzen duenak gobernatuko du mundua». AAk susmagarriak askoz azkarrago identifikatzeko edota arma autonomoak garatzeko gaitasuna ematen du, hala nola, drone armatuak, zeinak dagoeneko hedatuak izan diren Txinan, Israelen, AEBetan nahiz Erre-

suma Batuan [15].

Espazioarengatiko lasterketan 40 urteko atzerapenarekin sartu bada ere, Txina AEBek ezarritako oztopo guztiak gainditzen ari da, potentzia bihurtzeraino. Nazioarteko Espazio-Estazioaren erabilerari dagokionez ezarritako oztopoen aurrean, espazio-estazio propioa eraikitzea erabaki du, zeina 2022rako prest egotea nahi duen eta nazioarteko lankidetzarako laborategi gisa eskaini duen [16]. Txinaren nazioarteko eragina handitzen ari dela erakusten duen beste adibide bat. Espazioaren esplorazioan egon daitezkeen interesak askotarikoak dira: komunikazio-teknologien garapena, ikerketa espazioan edota baliabide mineralen ustiapena.

Txinak sektore teknologikoaren alde egiten duen apustua agerikoa da, lehentasunezko sektore hauetan egin-dako inbertsio-planek erakusten duten bezala: makineria informatizatua, robotika, kontsumo txikiko ibilgailuak, aparatu medikoak, teknologia aeroespaziala, itsas eta trenbide-garraioa, energia aurreztea eta zenbakizko kontrola. Ikerketan eta garapenean egindako inbertsioa BPGren % 0,95etik % 2ra handitzea da plana [14].

LEHENGAIAK ETA ENERGIA-BALIABIDEAK

Txina da lehengaien kontsumitzaile nagusia mundu mailan. Adibidez, Txinako altzairu eta burdin kontsumoa gainontzeko mundu osokoa baino handiago da, eta bere petrolio kontsumoa munduko altuena da. Horregatik, urre beltzaren prezioa ezartzeko erreferentzia berri bat jarri nahi du, Europako Brent edo West Texas bezala, Europak edo Amerikak baino gehiago ordaintzen baitu inportazioagatik [17].

Behar horien aurrean hornitzeko, Txinak bazkide komertzialak bilatu behar izan ditu lehengaiak eta hidrokarburoak lortzeko. Horretan Afrikak berebiziko garrantzia du, esaterako, Niger edo Angolak, zeinetatik uranioa ateratzen duen. Erauzketaz gain, garraioa da beste funtsezko alderdietako



Txina, estrategia protekzionistari jarraituz, mundu mailan lehiakide handi gisa agertzeko gai izan da, eta horrek, estatubatuarren nagusitasuna zalantzan jartzeaz gain, arantzel-gerra bat eragin du

bat, eta Afrikako zenbait lekutan azpiegitura onik ez dagoenez, Txinak epe luzerako inbertsioak egin ditu errepi-deak, trenbideak eta portuak eraikitzeko [18]. Bestalde, AEBak, energia-kontsumitzaile handiak izan arren, ekoizle handienetako bat ere badira. Gakoetako bat *fracking*-politika abian jartzea izan da. Horren ondorioz, gaitasuna izan du gas naturala eta petrolioa lehen ezin zuen lekuan lortzeko, eta horrek beste herrialdeekiko mendekotasuna murriztea dakar [19].

Txinak petrolioarekiko duen mendekotasunak ondorio larriak eragin ditu ingurumenean eta, beraz, datozen urteetarako ezarritako helburuetako bat

da osasun publikoa hobetzea. Horretarako, energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, energia hidroelektriko, eoliko eta fotovoltaikoei dagokienez, gaitasun instalatu gehien duen herrialdea izanik. Berriztagarrien aldeko apustuan lider bihurtu bada ere, emaitzak ez dira nahikoak Parisko Akordioan ezarritako helburuak betetzeko. Bestalde, 2017an, AEBek izkin egin zioten Parisko Akordioari, baina, hala ere, datuek erakusten dute 1950etik 2018ra energia berriztagarrien kontsumoa ia hirukoiztu egin dutela [20].

NAZIOARTEKO MERKATARITZA ETA LOGISTIKA

Lanaren banaketa internazionalak balio-kateak zaildu ditu mundu mailan, eta nazioarteko merkataritzaren sare zabal honetan, enpresa transnazionalek izugarrizko pisua hartu dute. Gaur egun, ikusten dugu nola produktu bat pentsatua, gero ekoitzia, aurrerago banatua eta azkenik saldua den, eta nola fase horietako bakoitza munduko punta batean gauzatzen den. Ekonomia burgesak dio merkataritza askeak bazkide komertzial guztiei egiten diela mesede, baina errealitateak erakusten du lehia kapitalistak garapen desberdina eragiten duela mundu mailan. Desberdintasun horren arrazoia da, lehian, indartsua indartu egiten dela ahularen kontura. Ebidentzia historikoek erakusten dutenez, Erresuma Batua, AEBak edo Japonia bezalako herrialdeek funtsezko industriak babestu zituzten mundu mailan lehiakorrak izan arte. Munduko balio-kateen garapenak soldata-kostu txikiak lortu nahi zituen, produktibitate handitzearekin batera, baina produktibitate horrek hegoaldean izan duen moteltzea funtsezko faktoreetako bat izan da nazioarteko merkataritzaren dezelerazioan [21]. Aipatutako dezelerazioa, neurri batean, Txinako ekonomian gertatutako aldaketa batzuen ondorio da: soldaten igoera, jarduera teknologikoetara birbideratzea eta ganbio-tasaren igoera.

Txina, estrategia protekzionistari jarraituz, mundu mailan lehiakide handi gisa agertzeko gai izan da, eta horrek, estatubatuarren nagusitasuna zalantzan jartzeaz gain, arantzel-gerra bat eragin du. Urte honen hasieran itun komertzial bat sinatu duten arren, puntu gutxi batzuk baino ez ditu ukitzen, gatazkaren puntu nagusiak bere horretan utziz, eta beraz, zalantzagarrria da horrek tentsioa lasaituko duenik, are gehiago, COVID-19a agertu ondoren. Tentsio gehien sortu duten gaitako bi dira muga-zergak eta industria nazionalentzako diru-laguntzak. Bi herrialdeen arteko inportazioak eta esportazioak murriztea eragin du muga-zergen

elkarrekiko igoerak [22]. Hala ere, AE-Ben partetik muga-zergak handiagoak izan direla ikusten dugu, eta horrek erakusten du helburua dela Txinak munduko hegemonia lortzeko lasterketan izan duen garapena oztopatzea. Txinak hartutako ildo estrategiko nagusietako bat barne-merkatuaren garrantzi erlatiboa handitzea da, esportazioekiko mendekotasuna murrizteko. Horretarako, inbertsioak areagotuko ditu osasungintzan, hezkuntzan, zerbitzu publikoetan, pentsioetan eta familia-laguntzetan, eta horrek «klase ertainaren» hazkunde handia ekar dezake.

Beste puntua da Txinaren subsidioena; izan ere, mundu mailan lehiakorrak izan arte bertako industriak babestea besterik ez dute oinarri, eta hori potentzia izatera iritsi diren guztiek egin dute. Donald Trumpen politika protekzionistak zalantza handiak sortu ditu burgesiaren hainbat sektoreren artean, batzuek ezpataz eta kapaz babesten duten bitartean, beste batzuek, besteak beste, sektore teknologikoak, zalantzan jarri baitituzte immigrazioari mugak ezartzea bezalako neurriak, uste dutelako horrek mugatu egin dezakeela beren sektorerako burmuinak atzeman ahal izatea. Trumpen politika gerra-egile eta adostasunen aurkakoak, bi blokeen arteko tentsioak handitzea ekar dezake, are gehiago gainean dugun krisiarekin [3].

Horretan, funtsezkoa izaten ari da salgaien fluxua eta biltegiratzea antolatzeko, planifikatzeko eta kontrolatzeko erabiltzen den logistika. Ekoizpen-sistemaren aldaketek garraio-jarduera ugari eskatzen dituzte eta, horretarako, ezinbestekoa da garraiobi-deak eta lan-indarra izatea, antolatzeko, gidatzeko eta kontrolatzeko. Txinak, horren garrantziaz jabetuta, funtsezko azpiegitura batzuk kudeatzea lortu du, hala nola, portuak. Espainiako Estatuaren kasuan, bost portu nagusietatik hiruren kudeaketan sartuta dago Txina (Bilbo, Valen-

tzia eta Bartzelona), eta Algecirasko portuarengatiko interesa agertu du. Datuen arabera, Txinako kapitalak teus trafikoaren % 35 mugitzen du (edukiontzien itsas garraioan erabiltzen den neurria) [23].

Baina Txinaren proiektu nagusia *One Road Initiative* da, Sedaren Ibilbide Berria bezala ezagutzen dena. Proiektu horrek bi ibilbide batuko ditu, bata itsasokoa eta bestea lurrekoa, asiar kontinentearekin eta kanpoaldearekin loturak hobetuko dituztenak, eta hori bultzada handia izango da bai arlo ekonomikoan bai politikoan nazioartean duen eraginarentzat.

Itsas-ibilbidea garatzeko, Txina inbertsio handiak egiten ari da Asiako hego-ekialdean, Indiako ozeanoan, Kanadako ekialdean eta Europako zati batzuetan (Atenasko El Pireo portuaren gaineko kontrola, adibidez). Beste atal garrantzitsu bat Txinako Yiwu hiria eta Madril lotuko dituen trenbidea da, 13.000 kilometro baino gehiago dituen munduko biderik luzeena. Aldi berean, gasbideak eta oliobideak eraiki ditu Errusian eta Kazakhstanen. Proiektu honen punturik garrantzitsuenetako bat Italiak eta Txinak sinatutako akordioa izan da, eraiki diren azpiegitura sare erraldoian sartzeko aukera ematen baitio Italiari. Akordiotik harago, balio sinboliko eta politikoa izugarria du horrek, Asiako erraldoiaren nazioarteko eraginaren gorakada erakusten baitu [24].

DIRUA, ZORRA ETA FINANTZAK

Txanpona da hegemonia estatubatuarraren beste alderdi nagusietako



El collar de perlas chino



bat. 1971ko Bretton Woodseko akordioen amaierak urrezko patroia- ren eta dolar-urrezko patroia- ren desagerpena eragin zuen. Baina estatubatuarren nagusitasuna eztaba- daezina da oraindik. Atzerriko monetako atzerriko erreserba guztien % 62 osatzen du dolarrak, eta parte hartzen du dibisa-merkatuetan egindako transakzioen % 85etan eta nazioarteko maileguen % 50 baino gehiagotan. AEBen eta gainerako herrialdeen arteko alde handia ikusteko, libera eta yenaren erreserbak ez dira % 5era iristen. Munduko diru gisa duen botereak neurritz gaineko pribilegioa ematen dio bere lehiakideekin alderatuta [25].

Dirua urre bihurtzeko ezintasuna gorabehera, ordea, esanguratsua da AEBek erreserba guztien % 76 urre gisa mantentzea. Aldi berean, Txinak, tradizional- ki bere zilar erreserbei eutsi dien arren, urre eros- keta handiak egin ditu, World Gold Council-en datuen arabera, bere urre erreserbak ia boskoiztu arte. Fase neoliberalak berezkoak dituen

ziurgabetasun eta ezegonkortasun finantzar- ioak urrearen erabilera handitzea ekarri dute, zeina beti izan den egonkortasunaren sinbolo.

Diruari dagokionez azpimarratu beharreko beste ezaugarri garrantzitsu bat da diruaren desmaterializazioa, hain zuzen, kontabilitate, transakzio eta konpentsazio sistema elektronikoei esker lortutakoa. Logika horri jarraiki, herrialde asko moneta birtual propioak garatzen hasi direla ikus dezakegu, beren Banku Zentralek babestuta. Txina da nagusi lasterketa honetan, eta dagoeneko hasi da moneta digital hori hainbat eskualdetan probatzen, zirkulazioan dauden billeteak eta txanponak ordeztuko helburuarekin. AEBak ez daude dolar- raren nagusitasun historikoa galtzeko prest eta, beraz, dolar digitalaren erabilera ikertzen hasi dira [26].

Munduko zorra da ekonomiaren beste kezka nagusietako bat; izan ere, datuen arabera, 2007tik 2014ra 60 bilioi dolar handitu zen, hau da, mun-

Iturria: EL ORDEN MUNDIAL

duko zorra munduko ekonomia baino hiru aldiz handiagoa da. Eta hori guztia, hurrengo urteak eta birusaren ondorioak kontuan hartu gabe. 2008tik aurrera, Txina eta Brasil bezalako herrialdeetara inbertsio handiak bideratu ziren, eta, datuen arabera, zor pribatua ekonomia horien tamainaren bikoitza da. Hala eta guztiz ere, Txinako maileguk markak hausten jarraitzen dute, eta horrek ere lagundu dezake azken urteetan bizi zuen beheranzko joera geratzen. Kutsatzeko arriskua txikiagoa bada ere, zorraren zatirik handiena yuanetan dagoelako, horrek ez du esan nahi Txinako hazkunde-bonbak eztanda eginez gero mundu mailan eraginik izango ez duenik [27]. Mundu osoan zehar egin dituen inbertsio handien ondorioz, herrialde askotan sortu da zor handia Txinarekin, eta horrek beste herrialde batzuetako politike-tan duen eragina handitu du. AEBek, bestalde, 70 bilioi dolarreko zor publikoa eta pribatua dute, Nazioarteko Finantza Institutuaren datuen arabera. Datu errekor hori arrisku handia izan daiteke herrialdearen etorkizunerako. Ezin da alde batera utzi Txinak AEBetako Altxorraren Tituluak eskuratzeko erabili duela izan duen soberakinaren zati handi bat, nahiz eta, antza, hori eten egin den azken urteotan. Hala ere, Asiako erraldoia AEBetako zorraren edukitzaile subirano handiena da, eta hori arma handia izan daiteke gerra honetan [28].

Hong Kong, Macao eta Taiwan funtsezko hiru pieza dira Txinak izan duen garapena eta erraldoi asiarraren etorkizuneko planetan izan duen garrantzia ulertzeko. Kolonia eta protektoratu horiek munduko ekonomiarekin lotu zuten Txina, munduko merkatuan erabat murgilduta egon aurretik ere. Dibisa ugari lortzea ahalbidetu zion sarbide horrek eta, aldi berean, goi-teknologia eta enpresa eta finantza-kudeaketan kualifikatutako eskulana lortzeko aukera ematen zion.

Txina ez da kikiltzen eta nazioarteko erakunde berriak sortzearen aldeko apustua egiten du, AEBek nazioartean



“

Ezin da alde batera utzi Txinak AEBetako Altxorraren Tituluak eskuratzeko erabili duela izan duen soberakinaren zati handi bat [...], Asiako erraldoia AEBetako zorraren edukitzaile subirano handiena da, eta hori arma handia izan daiteke gerra honetan



duten kontrola mantentzeko mekanismo gisa funtzionatzen duten erakunde aurre egiteko. Horren adibiderik onena 2016an Txinaren proiektu gisa sortutako Azpiegiturako Inbertsiorako Asiako Bankua da, gaur egun 102 estatu kide dituen. Proiektu honek Asiako azpiegitura eta ekoizpen-sektorea modernizatu nahi ditu, enpresek lehia-kortasuna handitu dezaten. Horren ondorioz, Munduko Bankua (AEBek eta Europar Batasunak kontrolatua) bezalako instituzioek, mundu mailako finantzetan duten posizio erabakigarria galdu dute.

MILITARIZAZIOA

Boterea izan da nagusitasun estatubatuarraren gakoetako bat. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, AEBek «munduko jendarme» papera hartu zuten, Frantzia edo Erresuma Batua bezalako potentzia militarren onespenarekin. Tresna militar horiek zeharka (mehatxuak, herrialde jakin batzuei edo frakzio batzuei laguntzea...) edo zuzenean erabiltzen dira, esku-hartze militarren bidez, onura ekonomiko handiagoak mantentzeko edo lortzeko. Amaigabea da AEBen edo bloke transatlantikoa delakoaren esku-hartze zuzen edo zeharkakoen zerrenda [29]. 2020ko *Global Firepower* sailkapenak potentzia militar handiena duten herrialdeen zerrenda erakusten du. Lehen postuan daude AEBak, ondoren Errusia eta Txina, bestalde Frantzia eta Erresuma Batua zazpigarren eta zortzigarren postuan daude, hurrenez hurren, eta Espainia, 20. postuan [30].

Stockholmeko Bakearen Aldeko Azterlanen Nazioarteko Institutuak (SI-PRI) zabaldutako txosten baten arabera, munduko gastu militarra % 3,6 igo zen 2019an, neurri handi batean AEBetako gastuari esker, hain zuzen, gastu osoaren % 38. Txina, berriz, munduko bigarren arma ekoizle handiena da. 2019ko defentsa gastua 156.675 milioi dollarrera iritsi zen, hau da, bigarren inbertsorarik handiena izan zen, baina AEBetatik oso urrun dago oraindik, Donald Trumpek 750.000 milioi dola-

rreko partida eskatu baitzion Kongresuari [30]. Txina indar handiarekin batu da arma-lasterketara, base militarrak ezarriz hainbat gune estrategikotan, hala nola Yibutin, Bab al Mandeb itsasartea kontrolatzeko helburuarekin, itsas-ibilbidean funtsezkoa dena. Inbertsio militarren gorakada horren beste helburu nagusietako bat izan da «barne defentsa» garatzea [31].

Hala ere, AEBen nagusitasun militarra eztabaidaezina da oraindik, eta ez dirudi datozen urteetan aldatuko denik. Hori abantaila handia izan daiteke zenbait alderditan, baina AEBak murgilduta dauden gatazken zerrenda luzea (zeinetan porrot asko jasan dituzten) muga handia izan daiteke Txina gailendu daitekeen beste eremu batzuen garapenean.

ONDORIOAK

Erreportaje honen izenburua *Aldaketa al dator?* da, eta erantzunak honakoa behar du izan: aldaketak etorriko dira. Hegemoniak ez du alderdi bakar bat oinarri; aitzitik, askotariko ezauzgarrien, harremanen eta indar-elementuen egitura konplexu bat da. Gainean dugun krisiak horietako bakoitzean nagusitzeko lehia bizkortuko du, eta horrek burgesiaren ofentsiba gogortzea ekarriko du. Ezin dugu zehatz mehatz esan Txinak munduko nagusitasuna lortuko duenik, baina ez dirudi hau gertaera iragankorra denik, eta badirudi aurrera egiten jarraituko duela helburu hori lortzeko bidean. Dena den, argi dago AEBek ez dutela amore emango borrokarik egin gabe.

COVID-19aren agerpenak gerra hori azkartu du, eta txertoa lortzeko lasterketa, onura iturri handia izateaz gain, funtsezko elementua izan daiteke nazioarteko eragin-harremanetan. Agian, oraindik ez dakigu gertakari horiek zer-nolako garrantzia izango duten datozen hamarkaden bilakaeran. Aldaketa asko, koiunturalak izatetik urrun, gertatzeko etorri dira, hala nola, telefono bidezko kontrolerako aplikazioak edota bereizmen handiko bideo-zaintza kamerak. Kontrol sozialeko sistemen

Hegemoniak ez du alderdi bakar bat oinarri; aitzitik, askotariko ezaugarrien, harremanen eta indar-elementuen egitura konplexu bat da. Gainean dugun krisiak horietako bakoitzean nagusitzeko lehia bizkortuko du, eta horrek burgesiaren ofentsiba gogortzea ekarriko du



modernizazioaren lekuko izaten ari gara, eta hori da, hain zuzen, erasoaldiaren gakoetako bat.

Aldaketa handienetako bat bloke europarrak mundu mailako mapan duen eginkizunean gertatuko da. Europako estatuek denbora daramate erraldoi asiarrari begira, eta pixkanaka-pixkanaka, gero eta nabarmenagoa da haren eragin ekonomikoa eta politikoa. Adibide onena da Alemaniak, Europar Batasunaren bihotzak, Txina duela bazkide komertzial handiena 2016tik. Gainera, badirudi harremanak areagotu egingo direla, bi herrialdeek uste baitute potentzial handia duela ekonomia digitalean, industria-ehunean, energia berrien autoetan, Adimen Artifizialean edo ingurumenaren babesean elkarrekin lan egiteak [32]. Beste bi adibide dira Italiak Sedaren Ibilbide Berrian duen parte-hartzea edota Santander Bankua bigarren akziodun handiena izatea Bank of Shanghai-n (herrialdeko bigarren merkataritza-banku handiena eta nazioarteko bazkide estrategikoa) [33]. Europar Batasunak eta AEBek birusari aurre egiteko orduan erakutsitako ezintasunak, askok Asiako eredurantz bira egitea ekar dezake, eta horrek Europar Batasuna are gehiago arrakalatzea eragin dezake. /

OHARRAK

1 Arrighi, G. (2009). *Adam Smith en Pekín* (Vol. 50). Ediciones AKAL.

2 Hobsbawn, E. (1995). *Historia del siglo XX*. Barcelona. Crítica, 662.

3 Fortune Global 500 (2019). <https://fortune.com/global500>

4 Smith, A. (2019). *El ascenso de China a potencia mundial*. Viento Sur. <https://vientosur.info/spip.php?article14676>

5 Gómez, E. (2016). *Plan Made in China 2025. Oficina económica y comercial de la embajada de España en Pekín*. file:///C:/Users/Infosec/Downloads/DOC2016671546.pdf

6 Tronti, M. (2001). *Obreros y capital* (Vol. 8). Ediciones Akal.

7 Astarita, R. (2009). *Monopolio, imperialismo e intercambio desigual*. Maia Ediciones.

8 Shaikh, A., & Diego Guerrero tr. (2009). *Teorías del comercio internacional*. Maia.

9 *Kapital I* (ed.Korsch), pp341-342 (MEW, vol 23, p. 377)

10 Astarita, R (2020). *¿Hacia una depresión global?* <https://rolandoastarita.blog/2020/03/10/hacia-una-depresion-global>

11 Mattick, P., & Paris, R. (1978). *Integración capitalista y ruptura obrera*. Laia.

12 Rodríguez, A. (2019). *Huawei y la geopolítica del 5G. El Orden Mundial*. <https://elordenmundial.com/huawei-y-la-geopolitica-del-5g>

13 Shah, S (2019). *Amazon: cuál es el negocio con el que el gigante tecnológico hace más dinero*. BBC. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-50781431>

14 Petras, J. (2017). *China y Estados Unidos: Planificación racional y lumpen capitalismo*. <http://motoreconomico.com.ar/opinion/china-y-estados-unidos-planificacin-racional-y-lumpen-capitalismo-i>

15 Rodríguez, A. (2020). *La inteligencia artificial, ¿la ventaja geopolítica definitiva?* <https://elordenmundial.com/inteligencia-artificial-ventaja-geopolitica>

16 Mediavilla, D. (2019). *China pasa de paria a vencedor de etapa en la segunda carrera espacial*. El País. https://elpais.com/elpais/2019/01/03/ciencia/1546542346_968384.html

17 Marcó del Pont, A. (2018). *El petro-yuan, ¿El centro en disputa?* <http://motoreconomico.com.ar/opinion/el-petro-yuan-el-centro-de-la-disputa>

18 El orden mundial (2019). *¿En qué sectores invierte China en África?* <https://elordenmundial.com/mapas/sectores-invierte-china-en-africa/>

19 Gómez, D. y Sanz, J. (2019). *La política energética en Estados Unidos en la actualidad*. http://www.iberglobal.com/files/2019-1/usa_energia_bice.pdf

20 García, A. (2019). *Evolución del modelo energético de China*. Revista La Comuna. <https://revistalacomuna.com/internacional/evolucion-del-modelo-energetico-de-china>

21 Husson, M (2018). *Crisis económica y desórdenes mundiales*. Viento Sur. <https://vientosur.info/spip.php?article14204>

22 Redacción BBC. (2019). *Guerra comercial entre Estados Unidos y China: ¿cómo afecta a las industrias tecnológicas de ambos países?* <https://www.bbc.com/mundo/noticias-49551605>

23 Vázquez, M. (2019). *Las terminales Chinas gestionan el 35% de los contenedores en España*. El Mercantil. <http://elmercantil.com/2019/05/20/las-terminales-chinas-gestionan-el-35-de-los-contenedores-en-espana>

24 El Orden Mundial. (2020). *¿Qué es la nueva ruta de seda?* <https://elordenmundial.com/que-es-la-nueva-ruta-de-la-seda-china>

25 Del Rosal, M. (2020). *La gran revelación: de cómo la Teoría Monetaria” Moderna” pretende salvarnos del capitalismo salvando el capitalismo*. ECOBOOK.

26 Barria, C. (2020). *La nueva moneda digital que China está probando y que sitúa al país a la cabeza de la carrera mundial de las divisas virtuales*. BBC news. Recuperado de: <https://www.eleconomista.net/economia/La-nueva-moneda-digital-que-China-esta-probando-y-que-situa-al-pais-a-la-cabeza-de-la-carrera-mundial-de-las-divisas-virtuales-20200506-0027.html>

27 Astarita, R. (2016). *Deuda global de 200 billones de dólares*. Recuperado de: <https://rolandoastarita.blog/2016/02/28/deuda-global-de-200-billones-de-dolares>

28 Rodríguez, C. (2019). *La deuda estadounidense, en récords*. Digital.com. Recuperado de: <https://dirigentesdigital.com/mercados/eeuu/la-deuda-estadounidense-en-records-YB1311441>

29 Serfati, C. (2018). *Las teorías marxistas del imperialismo*. Viento Sur. Recuperado de: <https://vientosur.info/spip.php?article13866>

30 Global Fire Power (2020). Recuperado de: <https://www.globalfirepower.com/countries-listing.asp>

31 Vidal, M (2019). *El gasto militar de China continúa su aumento por encima del PIB*. El País. https://elpais.com/internacional/2019/03/05/actualidad/1551790545_216640.html?rel=mas&rel=listapoyo

32 CGTN (2019). *China sigue siendo el primer socio comercial de Alemania*. <https://espanol.cgtn.com/n/Bf1cA-CEA-BIA/CIEIA/p.html>

33 El País (2013). *Santander compra el 8% del Bank of Shanghai por 470 millones*. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/noticias/4721711.html?idPais=CN#>

AUTOMOBIL- GINTZAREN SEKTOREA



Testua **Adam Radomski**
Irudia **Lander Moreno**

SARRERA

Oro har, nahiko onartuta dago automobila-
ren sektorea industria sistemaren funtsez-
ko pieza dela. Nazioarteko Diru Funtsak
2018an adierazi zuen bezala, dezelerazio globalak
erakusten du nolako pisua duen aipatutako sekto-
reak, ez da alferrik munduko BPGaren % 5,7^[1]. Zai-
la da sektore honen benetako garrantzia aztertzea.
Urrutira joan gabe, Espainiako Estatuan^[2] BPGren
% 10 eta enpleguaren % 9 hartzen du, baina in-
dustria osagarri osoa kontuan hartu gabe^[3]: kon-
ponketa tailerrak, mantentze lanak eta osagaien
fabrikatzaileak.

Ulertu behar dugu duela gutxira arte sektoreak
hazten jarraitzen zuela maila globalean^[4], baina
egiturazko arazoak dituela oraindik ere. Adibidez,
2018ko ekitaldian, Ford-ek 7 bilioi euroko iraba-
ziak zituen mundu mailan^[5], baina Europan, 398
milioiko galerak izan zituen. General Motors-ek
kontinente zaharretik ia erabat alde egitea erabaki
zuen, 20 urtez galerak izan ondoren, 2017ko eki-
taldian Europako merkatuan 4,2 bilioi euroko go-
rakada izan zuenean. Gainera, automobilgintzan
aplikatzen dira lehendabizi ekoizpen-estrategiak,
eta hortik beste sektore batzuetara igarotzen dira.
Adibide esanguratsua da lana antolatzeko moduen
izenena: fordismoa, toyotismoa... Automobilien mar-
ken izenak dira. Artikulu honetan, sektoreak dituen
hainbat kontraesan aztertuko ditugu, adibide zeha-
tzen bitartez irudikatzeko krisi kapitalistaren eta
langileen erresistentziaren joera orokorrak.

I. KONTRAESANA: LANAREN BANAKETAK KAPITALISTEN KONTRARA EGITEN DU

Gaur egun, automobilgintza eskala globalean an-
tolatutako sektorea da, eta ohikoa da instalazioak
birkokatzea. Kontua urrunetik dator: XX. mendea-
ren hasieran, ekoizle nagusia AEBak ziren, bereziki
Europa hegoaldetik eta ekialdetik joandako eskulan
migratzaileari esker. Ordurako, jada bazegoen langi-
le gatazka handien dinamika, eta enpresen erantzua,
lantokia hain gatazkatsuak ez ziren beste eremu
batzuetara birkokatzea zen, nahiz eta herrialde be-
rean izan. Horren adibide dira, Michiganen (1936),
Flint-eko General Motors delakoaren borrokak,
United Auto Workers-en bidez, non «gutxiengo
militante»^[6] batek ekoizpena gelditu zuen usteka-
bean, lantegian eserialdi bat eginez eta lan-katea
gelditu zutenean. Azkenean, linea gelditu zenean,
gainerako langileek «grebarekin ezinbestean bat
egin behar izan zuten»^[7]. Aurreko artikuluetan lo-
gistikari buruz aipatu genituen dinamikak aspaldi-
danik zeuden: langile batzuek posizio estrategikoa
dute lanaren banaketan, eta beren alde baliatzen
dute; patronala, berriz, lantegiak hain gatazkatsua
ez den beste leku batera bidaltzen saiatzen da. Ho-
rregatik, ekoizpena Detroiten zentralizatu zen, hor
Ford-ek kontratazio eredu irekia ezarri baitzuen,
eredu itxiaren aurrean (*closed shop*^[8]), sindikatuen
eragina gutxitzeko helburuarekin, eta aldi berean,
United Auto Workers-eko feudoetatik ihes eginez,
Flint kasu.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, sektoreak
boom^[9] bat jasan zuen eta hedapen handia izan

zuen Europan. Hala ere, Mendealdea astindu zu-
ten borroka oldeek eta 73ko krisiak, burgesia gaia-
ren inguruan erabakiak hartzera behartu zuten.
Burura datozkigu Italiako, Espainiako, Frantziako
eta bereziki Alemaniako estatuetako gatazkak, pro-
blematikoak zirenak ekoizpen-egitura modernizatu
eta kapitala metatzeko beharretara egokitu zedin,
eta hura laster sartuko zen berrirori krisian. Borro-
ka moldeen adibide gisa, 70eko hamarkadan Italian
(Fiat-eko gatazkak) txandakako greba^[10] erabili zen,
greba azkarra (denbora tarte txikiarekin edo tarte-
rik gabe abisatuz), tailerraren eskala solairu osoko
lanuztearekin koordinatuz. Nabarmenezkoa da
ekoizpena langileentzako ahalik eta kostu txikiena-
rekin geldiarazi nahi zutela, lanaren banaketa kon-
plexuan zuten posizioak ematen zien negoziatzeko
ahalmena baliatuta.

**Langile batzuek posizio
estrategikoa dute lanaren
banaketan, eta beren alde
baliatzen dute; patronala,
berriz, lantegiak hain
gatazkatsua ez den
beste leku batera
bidaltzen saiatzen da**





Marka-enpresei nahiko
ondo joan dakiekeen
arren, industriak oro
har gero eta arazo
gehiago ditu irabazi-
tasaren beheranzko
joera birbideratzeko

Are gehiago, gatazkak bultzatzeak, langileek ekoizpena kontrolatzeko modu mugatuak (gehiago edo gutxiago) ezarri ahal izatea eragin zuen. Fiat-en langile ordezkarien kontseiluak ezarri ziren (*consigli dei delegati operai*), eta horiek zereginak, lan-karga, lan-abiadura eta, oro har, gerenteen esku egon ohi diren eskumenak eslei zitzaketen. Hala ere, patronalak berregituraketa batekin erresistentzia hori haustea lortu zuen, batez ere, automatizazioaren eta arrazionalizazioaren bidez. Beraz, langile kopurua izugarri murriztu zen, eta, horrela, langile kontrol organo horien gainetik pasatu eta aurreko hamarkadetakoa garaipenak irauli ahal izan ziren. Era horretan, proletalgoa ekoizpen-prozesuan integratzeak, aldi berean, hura menderatzea eta mendekotasuna hausteko atea zabalik uztea dakar. Horregatik mantentzen da proletalgoaren zati bat ekoizpenetik kanpo.

II. KONTRAESANA: KAPITALISMOAREN HEDAPENAK BERE DESAGERPENERAKO AUKERA ZABALTZEN DU

Europako gatazka boladen ondoren, argi geratu zen berriro lur berria bilatu behar zela automobilgintza industria ezartzeko, ahal izanez gero, lan-indarra merkeagoa zen edota zapalduagoa zegoen nonbaiten. Adibidez, 1964ko kolpe militarren on-

doren, Brasilek hautagai perfektua zirudien. Horrela, herrialdeko automobilgintzaren industria azkar hazi zen eta proletariotza berri bat sortu zen. Dena den, historia berriro errepikatu zen eta gatazkak areagotu egin ziren, hala eta guztiz ere. Errepresioak mobilizazio handietan jotzen bazuen, taillerretan bertan oso disruptiboak izaten ziren eskala txikiagoko gatazkak biltzen ziren. 1987an, gailurra jo zuenean 9 milioi grebalari izatera iritsi ziren. Zer egin zuen patronalak horren aurrean? Brasilego automobilgintzan inbertitzeari utzi. Patroi bera errepikatu zen Hegoafrikan eta Hego Korean^[11]. Hemendik beste gako bat atera dezakegu: automobilgintzaren sektoreak, hedatzen denean, proletalgoaren hedapenean laguntzen du, kapitalismoa *potentzialki* abolitu dezakeen klasearena, hain zuzen.

Beverly Silverren^[12] arabera, joera batez ari gara, horren arabera, langile «berriek» beren disruptiorako gaitasuna erabiltzen dute, eta, azkenean, sindikatuen aitortza^[13] eta soldaten igoera ezartzen dituzte, eta, agian, ekoizpen prozesuaren alderdi batzuen gaineko nolabaiteko kontrola lortzen dute. Azkenik, patronalak hainbat aukera ditu: inbertsioak beste leku batera bideratzea, kapitalismoaren kontraesanek sortzen duten gatazkatik etengabe ihes egiten saiatuz, edo automatizazioaz eta «sin-

dikalismo arduratsuaz» baliatzea proletalgoaren ekoizpen-prozesuaren gaineko kontrola mugatzeko. Jakina, hainbat taktika erabili ohi dira aldi berean.

III. KONTRAESANA: KRISIA ARINTZEKO NEURRIAK NEURRI, HONDORATZEA ETORRI EGITEN DA

Automatizazioak ere merezi du begirada bat. Modu errazean esanda, makinizazioak burgesiari ekoizpenaren gaineko kontrol handiagoa izateko aukera ematen dio, proletalgoarekin etengabeko gatazkan baitago, eta ekoizpenaren kostuak murrizten ditu. Alabaina, arazo bat konpontzen saiatzen den aldi berean, salgaiak debalutzen laguntzen du, salgai horiek gizartean lanerako beharrezkoa den denbora gutxiagorekin ekoizten baitira. Irtenbidea autoen salmentak handitzea litzateke, baina beste hainbat eragozpenekin egiten dute topo: alde batetik, gero eta ale gehiago saldu behar dira, horien balioa murriztu baita. Bestetik, Europako merkatuak bazituen saturazio zantzuak COVID-19aren krisiaren aurretik ere, eta horrek funtsean eragin duena da errealdatzea lortu ez den autoetan balio kopuru handia egotea gordeta. Horrelako egoeren aurrean, estatuek hainbat aringarri erabiltzen dituzte, baina ez dute arazoa konpontzen. Hau da: estatuak eska-

ria suspertzen du ibilgailuak erosiz (anbulantziak, patruila autoak...) edo Renove Plana bezalako finantzaketa kanpainen bidez.

Kapitalaren balorizazio prozesuari dagokion beste alderdi problematiko bat sektore horri mesede egiten dion egitura bera da. Automobilgintzaren industria punta-puntakoa da etekin gutxiena ematen duten prozesuko faseak kanporatzeko edo azpikontratatzeko. Azpikontratek, berriz, irabazien marjina gero eta estuagoak dituzte. Horregatik, marka-enpresei nahiko ondo joan dakiekeen arren, industriak oro har gero eta arazo gehiago ditu irabazi-tasaren beheranzko joera birbideratzeko. Gainera, zorpetzeko, porrot egiteko eta lan-indarra neurritz kanpo esplotatzeko^[14] joera dute azpikontratek, eta horrek, gatazka gunee potentzial bihurtzen ditu. Izan ere, deigarria da albisteetan enpresetan nagusi diren plantetako gatazken berri ematen dela, baina gutxiago entzuten dela azpikontratetako etengabeko gatazkei buruz, non aldi baterako eskulana erraztasun harrigarriarekin zokoratzen den, baita enpresa batzordeen onespenearekin ere. Orain, enpresa nagusiak, jarraian datozen azpikontratek ekarritako «moduluak»^[15] muntatu besterik ez du egiten, eta mantentze edo garbiketa-zerbitzuak ere kanporatzen dira, adibidez.



Kapitalismoak ekoizpen mota jakin bat inposatzen du, ahalik eta baliorik handiena ateratzera bideratuta, eta horrek zehazten du ekoizpen ehunaren egitura. Hori dela eta, ematen zaigun guztia ez zaigu baliagarria

ONDORIOAK ETA LANGILE KONTROLARI BURUZKO OHAR BAT

Ikusi dugun bezala, automobilgintzaren sekto-reak konpondu ezin dituen arazoak ditu. Une jakin batean proposatzen diren irtenbideak, hala nola birkokatzea eta kanporatzea, edo automatizazioa, arazo bihurtzen dira azkenean. Horrela, kapitalismoaren egoeraren sintomak islatzen ditu: aurretantz ihes egitea, aldi baterako airea hartzeko, bere dinamikek hondoratzen duten bitartean.

Langileen borrokei dagokienez, kontuan izan behar dugu ikusi ditugun adibide gehienak ez direla esperientzia iraultzaileen parte, sinpatia handia sortzen diguten arren. Oro har, ekoizpenaren berregituraketei aurre egiteko erresistentzia borrokak ziren, langileek argi baitzuten ezin zutela haietaz fidatu. Gehienetan, ez ziren beren berehalako helbueruetatik harago joaten: soldata igotzearen aldekoak izan zitezkeen, sindikatuak —erradikaltasun maila ezberdinekoak— aitortuak izatearen aldekoak, edo lan-baldintzen gaineko borroken aldekoak. Ekoizpenaren kontrola planteatzen zen kasu bakanetan, laster egiten zuten topo muga argiekin, erabaki zezaketelako azkarrago edo motelago lan egin, baina ezin zutelako erabaki zer, nola eta zertarako ekoitzi.

Kapitalismoaren berrikuntzen historia langileen kontrolaren aurkako borrokaren historia ere bada. Izan ere, kapitalismoak ekoizpen mota jakin bat inposatzen du, ahalik eta baliorik handiena ateratzera bideratuta, eta horrek zehazten du ekoizpen ehunaren egitura. Hori dela eta, ematen zaigun guztia ez zaigu baliagarria, nahiz eta *a priori* «sozializazioa» oso erradikala irudit. «Langileen kudeaketaren» apologeten akatsa kapitalismoa kudeaketa modugisa ulertzea da, eta ez harreman sozial modura. Bestela esanda, kontua ez da langileek kapitalismoa kudeatzea, nahiz eta kasu jakin batzuetan hori egitea bizirauteko modu legitimoa izan. Kapitalismoa gaintitza da helburua.

Azkenik, inoiz ez da orain adina proletario egon, eta, neurri batean, deslokalizazioa da horren arrazoi-etakoa bat. Dena den, horrek ez du esan nahi, berez, kapitalismoaren amaieraren hasiera denik. Gogora dezagun proletalgoa, lanaren klase kriti-koa, kapitalismoaren suntsitzaile *potentziala* baino ez dela. Alabaina, engranajearen gorpila ere izan daiteke, hainbat sindikatuk eta enpresa batzordek erakusten duten bezala. Langile klasearekin kontsekuenteak dira beren izaera kapitalista onartzen dutenean. Gure eginbeharra, beraz, potentzia hori ekintza bihurtzea da. /

ERREFERENTZIAK

Beverly Silver. «1930-present: Labour unrest and the successive geographical restructuring of the world automobile industry» <https://libcom.org/history/1930-present-labour-unrest-successive-geographical-restructuring-world-automobile-indust>

Wildcat. «El fin del automóvil» https://www.wildcat-www.de/sp/w83_fin_del_automovil.htm

Corsino Vela. *Capitalismo terminal. Anotaciones a la sociedad impositiva.* 2. kapitulu «Deslocalizar, externalizar, subcontratar», «Desregulación y economía sumergida», 3. kapitulu, 2. eranski-na «La industria automovilística, un sector maduro y conflictivo».

AUTOMOBILGINTZAREN SEKTOREKO ZENBAIT BORROKA:

A. Muhammad Ahmad. «1968-1971: The League of Revolutionary Black Workers». <https://libcom.org/library/league-revolutionary-black-workers>

Sandro Mezzana, Mario Neumann. *Clase y diversidad sin trampas.* I. atala, 7. kapitulu «Interseccionalidad, reproducción, patriarcado».

Kolektivně Proti Kapitálu. «I love yellow monitors! The wildcat strike in Hyundai factory in Czech». <https://libcom.org/library/i-love-yellow-monitors-wildcat-strike-hyundai-factory-czech>

Matamoroseko, Mexiko, maquiladoren grebei buruz <http://www.izquierdadiario.es/Por-que-estan-en-huelga-70-000-trabajadores-y-trabajadoras-de-las-maquilas-mexicanas>

LANGILE KONTROLARI BURUZ:

Markel Samaniego. «Nissan eta sozialismoaren eraikuntza ekonomikoaz». <https://gedar.eus/koiuntura/es/markelsamaniego/nissan-eta-sozialismoaren-eraikuntza-ekonomikoaz>

Gilles Dauvé. *Declive y resurgimiento de la perspectiva comunista.* Pannekoek eta Bordiga-ren inguruko eranskina. <https://kaosenlared.net/apuntes-sobre-pannekoek-y-bordiga/>

OHARRAK

[1] MF World Economic Outlook. Global Manufacturing Downturn, Rising Trade Barriers, Chapter 1, October 2019. 34. Orrialdea.

[2] Europa mailako bigarren ibilgailu ekoizlea da, Alemaniaren atzetik, eta munduko zazpigarrena. <https://www.diarimotor.com/noticia/espana-fabricante-coches-europa-2017/>

<https://investinnavarra.com/wp-content/uploads/2015/01/Guia-Automocion.pdf>

[3] Gaia hurbiletik datorkigu, Nafarroak oso ekonomia industrial duelako eta, batez ere, automobilgintzan espezializatzen delako, salgaien esportazioen % 45 sektore horretakoa da, gainera. Are gehiago: Iruñeko Volkswagenek 5.000 langile kontratatzen ditu zuzenean, baina beste 13.000 azpikontratzen ditu Nafarroan.

[4] 2018an, aurreko krisialditik lehen aldiz, produktibitatea jaitsi egin zen.

[5] https://www.wsj.com/articles/auto-sectors-struggles-threaten-global-growth-11571830251#comments_sector

[6] Hona hemen aipua: «1930-present: Labour unrest and the successive geographical restructuring of the world automobile industry». Beverly Silver.

[7] Idem.

[8] Patroiak sindikatuko kideak baino ezin ditu kontratatu. Gaur egun legez kanpokoa da AEBetan, eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 11. artikulua- ren arabera, legez kanpokoa izan beharko luke EBn.

[9] Europan langileek kontsumorako aukera handiagoa duten garaia ere bada.

[10] Fabrika osoan greba antolatzea zailegia denean, sektore batetik bestera txandatzea ere eraginkorra izan daiteke.

[11] Adibide horiei buruz gehiago ikertu nahi duenak «erreferentziak» atalean dauka aukera.

[12] «1930-present: Labour unrest and the successive geographical restructuring of the world automobile industry». Beverly Silver.

[13] Edo zuzenean horien gainetik pasatzen ziren, horren adibide da joan den urteko Mexikoko *maquiladoren* (muntaketa alorreko azpikontratak) greba, Matamorosen 70.000 grebalarirekin, sindikatuen gainetik pasatuta.

[14] Legez kanpoko tailerrek eta ezkutuko ekonomiak mozkinen kuota maximizatzen laguntzen dute. Maila baxuago horietan aplikatzen den irabazi tasaren beherakadaren beste kontrako joera bat da enpresa txikienetan kapitala- ren osaera organikoa baxua izatea eta eskuzko lana egiten edo metodo nahiko tradizionalak erabiltzen jarraitzea.

[15] Osagai konplexuak, argien sistema, esaterako.

Donbasseko borrokaren sustrai ideologiko zein historikoak

Testua
Jon Kortazar

Irudia
Zoe Martikorena

2019ko uztailean
GEDAR.EUS-en
argitaratutako bi
testuen bateratzea

Gaurkoan, denbora faltagatik zutabea nahiko ezaguna zaidan gai batez hitz egitea erabaki dut. EH-Donbassen kide naizenez, hila-bete honetakoan hurbil dagoen gai batez hitz egingo dut, Ukrainako gudaz.

Hala ere, gai hona, ikuspuntu historikotik hurbilduko naiz. Izan ere, zenbaiten arabera, guda hau alde batetik «ukrainar nazioak» eta beste alde batetik «errusiarrek» egiten dute. «Errusiar» horrekin, denetarikoa sailkatzen da: izan Errusiar Estatuaren ustezko inbasio bat –gertatu ez dena- edo Donbasseko herritarrak deskribatu ohi dira. Bigarren hau, nahiz eta axio-ma objektibagarri faltsu bat ez izan,

iritzi gisa askoz ere arriskutsuagoa da, Donbasseko herritarrak «atzerritar» gisa paratzen dituelako, hots, Errusiaren edo SESBen ustezko «errusiartzearen» produktuz identitatea aldatutako herritarrak, «jatorrizko» edo «zilegizko» nazioari guda egin nahi diotenak. Euskal Herrian ere entzun izan dira donbasstarrei buruzko halako iritziak.

Gure arabera, guda hau ez da hain-beste Errusiaren «espantsio guda» bat, baizik eta, batez ere, bi arrazoiren batuketak: batetik, 2014ko estatu-kolpe faxistak (edo faxistoideak) zanga zabaldu zuen Ukrainaren bi parteen artean. Baina zanga zabaldu ahal izateko, lehen-dik arrakala egon behar da. Eta kasu





honetan arrakala egon bazegoen, hau da, Ukrainan, 1991 eta 2014 artean, bi «nazio» edo «protonazio» guztiz ezberdin ziren; historiari, gertakizun historikoei edo pertsonaia historiko ezberdinei buruzko ikuskera guztiz kontrakoak zituztenak, gainera. Izan ere, historian zehar, «Ukraina» deitutako nazio bereizi batek ez ditu sekula izan (are gutxiago estatu independente gisa) 2014ra arte zituen mugak, Halitxina eta Donbass, Volinia eta Zaporizhia, Kharkov eta Odessa bezalako lur hain ezberdinak biltzen zituztenak: muga horiek SESBren produktu dira.

Egungo (beno, 2014 arteko) Ukraina oso historia ezberdina izandako lurrek osatutako lurralde bat zen: bazeuden mendeetan Errusiarekin lotura oso gutxi izandako lurrak (Halitxina), zein aro modernoan Kieven mendeko entitate politiko batean SESBek sartu zituenak (Kharkov, Krimea, Taurida...). Historia hain ezberdina zuten esparru geografiko hain ezberdinetan, jakina da, historia ikuskera oso ezberdinak sortzen dira, zati horietako bakoitzak «ukrainartasuna» oso modu ezberdinean ikusten baitu. 1991 eta 2014 artean, ukrainar estatu independenteak kale egin zuen herrialdearen bi zati nazionalak bat egin zitzakeen narratiba bat sortzen. Arrakala ez zuen itxi.

Hain zuzen ere, bigarren honetan zentratuko naiz gaur; arrakala honen

inguruko irakurketa interesatuak baitira Donbassen inguruan iritzi desitxuratuetan oinarritutako narratiba sortzearen abiapuntua: nazio bakarra eta «naturala» omen dago, «Errusiak» ez omen du onartu hau «askatu» izana, «Errusiak» eta bere espantsionismoak ukrainar batzuk «pozoitu» omen zituen Ukrainaren gaineko kontrola mantentzeko, eta egoera honi erantzuna izan omen zen Maidango mugimendua (tartean, katalan ezkerreko pertsonaia ezagun batzuek sinatutako manifestu batean ere hala irakur daiteke: Maidana «dominazio stalinistari» erantzunez gertatutako mugimendu nazional bat omen zen). Beraz, Donbasseko altxamendua «kanpo dinamika» bati erantzuna izango zatekeen. Hau ihardesten saiatuko gara hurrengo lerroetan.

Esan bezala, egungo Ukrainaren mapa, XX. mendeko produktua izan da parte handi batean. Era berean, «ukrainar» izena bera ere modernitatearen produktu izan da, izan ere, «Ukraina» hitzak berez «mugako lurraldea» (hau da, frankoek «marka» deitzen ziotena) esan nahi baitzuen. Nazio guztiak dira modernitatearen produktu, baina kasu honetan merezi du ukrainar herriaren formatze-prozesuari buelta bat ematea lehen aipatutako arrakala zein izan den ulertzeko.

Beraz, hein handi batean, «Ukraina» deitutako entitate politiko baten sorre-

ra, Errusiar Iraultzak bermatu zuen. Ez dugu hemen esan nahi ukrainar herria asmakuntza bat denik. Edo bai, praktiki nazio guztiak baitira hein batean asmakuntza. Baina egon badago, beraz, ez dugu hori eztabaidatuko. Esan nahi duguna da Ukrainaren garapena kasu askotan Errusiarekin batera gertatu izan dela, nabarmenki XX. mendean. Goazen aztertzer.

Ukrainar nazionalismoak bi mugarri jotzen ditu bere nazioaren sorburutzat: IX-XIII. mendeen arteko Kievko Rus Estatua eta XVII. mendeko Zaporozhiako kosakoen para-estatua. Kievko Rus, oro har, ekialdeko eslaviar guztien «estatua» izan zen (estatu aurre-feudala zen, izatez nobleziarena, baina aurrezteko, esan dezagun lehenengo), XII. mendean feudo ezberdinetan zatituz joan zena, eta XIII. mendean mongoliar (ekialdetik) zein poloniar (mendebaldetik) inbasioek konkistatu zutena. Kieveko Rusen garaian, hizkuntza ezberdintasunik ez zegoen eslaviar ezberdinen artean, beraz, bai ukrainarrek zein errusiarrek nahiz bielorrusiarrek euren estatu edota herriaren «arbaso» zela esan dezakete. Bertako biztanleei «rusin» (mendebaldeko hizkuntzatan «erruteniar» edo «errusiniar») edo «ruski» deitzen zitzaien, oraindik ez baitzen «ukrainar» demonimoa agertu. XIII-XIV. mendetan, feudo errusiniar bat, Mosku ingu-

“

Historian zehar, «Ukraina» deitutako nazio bereizi batek ez ditu sekula izan (are gutxiago estatu independente gisa) 2014ra arte zituen mugak, Halitxina eta Donbass, Volinia eta Zaporizhia, Kharkov eta Odessa bezalako lur hain ezberdinak biltzen zituztenak: muga horiek SESBren produktu dira

rukoa, mongoliar nagusigoarengandik askatzen hasi zen, Moskovia sortuz. «Rus» delakoaren zentro berria Moskun ezarri zen, eta gerora, XV. mendean, «Errusia» zein «errusiar» («Ros-sija» eta «rusски») kontzeptuak agertu ziren, aurreko «Rus» eta «errusiniar/erruteniar» kontzeptuen eboluzio gisa. Beste alde batetik, egungo Ukraina aldeko errusiniarrak XIV. mendean Lituaniako Dukerri Handia (estatu eslaviarra, egungo Bielorrusiaren «arbaso») zelakoaren menpe erori ziren, eta XV. mendean, Poloniaren menpe. Garai hartan hasi ziren errusiarren eta erruteniarren artean nolabaiteko hizkuntza-ezberdintasunak agertzen. Gainera, poloniarrek beste erlijio bat zutenez –erromatar katolizismoa– eta berau inposatu nahi zutenez, bien artean zanga areagotzeko beste faktore bat izan zen (Ukrainan ortodoxiak erlijio nagusia izaten jarraitzen du, baina mendebaldean, Halitxinan, katolizismoa da nagusi). Bestetik, egungo Ukrainaren hegoaldea eta Krimea turkiarren menpe geratu ziren, eslaviar mundutik at izango ziren XVIII. mendera arte.

XVI-XVII. mendeetan hasi zen «Ukraina» hitzaren zabalkundea, Turkia, Polonia eta Errusiaren arteko mugako lurraldea izendatzeko; hitzak hori bera esan nahi baitu, «mugako lurraldea» (eslavieraz «krajina» hitzak muga edo muga-ondoa esan nahi baitu,

Balkanetan ere badaude hainbat «krajina»). Hitz hori, hasieran, geografikoa zen: «ukrainarrak», «mugako lurralde» horretan bizi zirenak ziren. Mugako lurralde hori egungo Ukrainaren erdialdea izan zen, Dnieper errekaen bi bazterretan, hau da, Donbassen mendebaldera, garai hartan Donbass jada Errusia barnean baitzen. Bitxikeria bat, Errusiar Inperioaren barruan zegoen lur bat, egungo Kharkov ukrainar probintzia denaren tokian «Slobidna Ukrajina» izenez ezagutzen zen, hau da «Ukraina Askea» edo «Mugaldeko Lur Askea» izenez. «Askea» jada poloniar katolikoengandik askatutakoa zela ulertzen zelako.

Mugako lurraldeak baserritar-soldadu abenturazaleentzat oso aproposak izan ohi dira, eta Ukrainan ere hasi ziren finkatzen halakoak, kosakoak; zeintzuk talde gero eta handiagoak osatzen hasi ziren. Horrela sortu zuten euren antolakunde politiko handia, Zaporozhiako Olde Kosakoa. Hau, Ukraina mendebaldeko Halitxina eskualdeko politikari ultraeskuindar batek –Oleh Tiahnibok, Maidanean buru ibilitakoa– «lehen ukrainar estatua» bezala identifikatu zuen. Hala zen edo ez, nik ez dakit eta ez dut hemen ebatziko. Baina egia bada, bi gauza esan behar dira: lehenik, Zaporozhiako Oldearen lurrak egungo Ukrainarenak baino askoz txikiagoak zirela, Dnieper ibaiaren arroa

Jon Kortazar

Jon Kortazar, 1977ko maiatzaren 10ean, Donbassen jaioa da. 2007an, 30 urte zituela, Ukrainara emigratu zuen. 2010ean, Ukrainako Errepublikaren lehen ministroa izan zen. 2014an, Ukrainako Errepublikaren presidentea izan zen. 2019an, Ukrainako Errepublikaren lehen ministroa izan zen.

soilik hartzen zutela –ez Donbass, ez hegualdea–; eta, bigarrenik, Olde horretan ortodoxoak soilik onartzen zi-rela. Tiahniboken baieztapena egia bada, halitxinarrak, bera barne, kato-likoak izanagatik, ukrainar naziotik at geratuko lirateke.

1648an, Zaporozhiako Oldea eta, oro har, Ukrainako erruteniarrak, Po-loniaren aurka altxatu ziren, batez ere erlijioa bide, ortodoxiaren defentsan. Hala, ez da harritzekoa 1654an Olde horrek «anaia ortodoxoarekin», Erru-sia, autonomia zabal baten parte iza-teko integrazio-itun bat egitea. Horrek Errusiaren eta Poloniaren arteko guda bat ekarri zuen, zeinak Errusiaren eta Zaporozhiako Oldearen lurrak Dnie-perrerraino zabaldu zituen, hau da, Kiev barne. Agian hau izan daiteke orduko zaporozhiarren eta egungo ukraina-rren jarraikortasuna egiteko arrazoa. Hala ere, beste toponimo bat erabiltzen hasi ziren orduan: «Errusia Ttipia» (Malorossia), «ttipia» hitzak, eslaviar hizkuntzetan «zentrokoa» esan nahi duelarik (Kiev hiriburu zaharrarekiko zentrokoa)[1]; eta bertako biztanleak «errusiar ttipiak» edo «malorossii» (singularrean, «maloros»). Errusiar Inperioaren eta zaporozhiarren arte-ko aliantza ezin dugu esan oso harmo-niatsua izan zenik, aro lasaiagoak eta erreboltazkoak bizi izan baitzituen, azken horiek, XVIII. mende bukae-ran, Kattalin Handia tsarina Oldea di-solbatzera eraman zutelarik. Hala ere, artean, errusiarren eta zaporozhiarren arteko aliantzak Malorossiaren mugak Dnieperren beste aldera eraman zituen, egungo Ukrainaren lurralde batas-u-naren oinarriak –era inkontzientean bada ere, orduan, ez zutelako Erru-siaz at zen beste nazio baten sorreran pentsatzen– ezarriz.

XIX. mendea nazioen mendea izan zen. Europa osoan zehar nazioak ager-tu ziren historiaren subjektu bezala. Intelktualak «herriarengan» –sub-jektu interklasista bezala– pentsatzen hasi ziren eta «herriak» sortzen, osa-tzen joan ziren, batez ere «herria» edo «nazioa» osatzen. Honela, hauen parte

gisa pentsatzen hasi ziren ordura arte estamentuez, eskualde- edo erlijio-ez-berdintasunez zeharkatutako giza-tal-de soilak zirenak. Ukrainan berdin. Mi-kola Kostomarov historiagilea izan zen Errusia Ttipiaren kasuan nazionalitatea planteatzen lehena: bere liburua, modu esanguratsuan, *Bi errusiar nazionalita-*

Zaporizhiako Hordako lurrak (morez) eta Poloniari Errusiarekin aliantzan irabazitako lurrak (berdez). Ikusten dugunez, Ukrainako hegualdea kanpoan dago.



te deitzen zen[2]. Beste historiagile ba-tek, Mikhailo Hruxevskik, Ukrainan izan ziren estatu-formazio ezberdinen azpian zegoen eta iraun zuen ukrainar herriaren jarraikortasuna planteatu zuen: ukrainar herria, berbera zena, bertan izan zela mendeetan zehar; be-re tesiak ukrainar historia nazionalaren oinarri dira. Baina askoz ere famatua-goia Taras Xevtxenko poeta izan zen, nekazarien defentsagatik SESBen ere oso errespetatua –bere lanak Sobietar Batasun osoko eskola-kurrikulumean sartu ziren eta Errusiar Iraultzaren os-tean honen omenezko estatua pila egin ziren–, «ukrainar nazioaren aita» dei-tutakoa. Garai honetan eman zen de-monimo aldaketa, Errusiaz bereizitako herri baten existentzia aldarrikatzeko «errusiar ttipi» ez zen demonimo ego-kia, beraz, ordura arte izen geografiko izandako «ukrainar» demonimo bihur-tu zen. «Malorossii» zirelakoak «ukra-jintsii» (singularrean, «ukrajinets») bihurtu ziren.

Hala ere, kontutan hartu behar da

Urriko Iraultzarekin batera, Errusiako behin-behineko gobernua desagertu egin zen eta, ondorioz, Ukrainan bi zilegitasun sortu ziren, Radarena eta Sobietena

ukrainartasuna Malorossiaren oina-rrian eraiki zela. Honen parte izan ez ziren eskualdeetan kontzientzia ho-ri askoz ere ahulagoa izan zen; adibi-dez Donbassen, edo Kattalin Handiak XVIII. mende bukaeran konkistatutako Krimean eta Tauridan, zeinetara Erru-siar Inperio osoko jendea –errusiar tti-piak, zein errusiar handiak zein erru-siar zuriak– lekualdatu zen. Lur horiei Kattalin Handiak «Novorossija» (Erru-sia Berria) izena jarri zien, Donbassen 2014-2016 artean asko erabilitakoa.

Errusiar Iraultzarekin etorri zen Ukrainaren egituraketa politikoa. Bi iturri izan zituen, nazionalista lehenik, eta komunista gero. Nazionalistak, Mikhailo Hruxevski buru, 1917ko otsai-leko iraultzaren ostean autonomia es-katu zuen, baita lortu ere: behin-behi-neko gobernuak ukrainar parlamentua (Rada izenekoa) zein autonomia onar-tu zituen. Hala ere, Urriko Iraultzare-kin batera, Errusiako behin-behineko gobernua desagertu egin zen eta, on-dorioz, Ukrainan bi zilegitasun sortu ziren, Radarena eta Sobietena. Radak ez zuen Errusiar Iraultza onartu, eta hurrengo egunetan «Ukrainar Errepu-blika Nazionala» aldarrikatu zuen, pro-grama sozialista moderatu batekin, hau da, Errusian Otsaileko Iraultzaren os-tean nagusi izan zen antzeko programa batekin –iraultza burgesa, lurren ba-naketa moderatua, ordezkaritza parla-mentarioa eta ez Sobieten boterea... –, batez ere burgesia-ttipiaren eta baserri-tar jabe ttipien babesa lortuz. «Otsai-leko adostasunaren» ideiak, urriaren ostean, Kieven nazionalistek eraman zituzten rurrera, edo behintzat saiatu ziren, kontrola mantendu zuten epe laburrean. Errepublika horrek bere bu-rua «federaltzat» jotzen zuen hasieran, Errusian Iraultza iritsi ez zen zonal-deetako gobernuekin bat[3] «Errusia federala» eraikitzeko deia egin bai-tzuen (are, Asanblada Konstituziogilea Kieven biltzea proposatu zuten). Hau izan zen, eta ez independentzia edo au-todeterminazioa, ukrainar Radaren eta boltxebikeen arteko demaren arrazoa, momentu hartan Leninek eta Stalinek



Lehen zatian, ikusi dugu nola osatu ziren ukrainar nazioa eta estatua; eta Lenin eta Stalin berauek defendatzen ere ikusi ditugu –ez erasotzen, askotan esan den moduan–

idatzitako gutunek adierazten duten moduan. Bien gutunetan inon ez da agertzen ukrainar herriaren edota bere autodeterminazioaren ukapenik, baieztapena baizik.

Errepublika honen independentziaren aldarrikapena 1918ko otsailean izan zen, Alemaniaren laguntza lortzeko. Baina, 1918ko urtarrilean, ukrainar Sobietek, ekialdean, Kharkoven bilduta, Ukrainako Errepublika Sobietarra aldarrikatu zuten. Honela hasi zen Iraultza Ukrainara hedatzen, urtarriaren bukaeran Kiev hartu zutelarik. Ukrainako Errepublika Sobietar hori, independentea –1922an, SESB sortu zenean, federatu zen Errusiarekin–, emakumezko estatuburu (aristokrazia-

koak kenduta) bat zuen munduko lehen estatua izan zen: Jevgenija Box. Egia da Errepublika horrek ez zuela lehen momentuan gehiegi iraun, 1918ko martxoan, alemaniarrek, Brest-Litovskeko Ituna zela eta, Ukraina inbaditu baitzuten, berriz ere boterean nazionalistak jarriz; lehenbizi Rada, eta gerora, Skoropadski diktadorea.

Nazionalisten boterea, baina, desgertu egin zen euren sostengu nagusi ziren alemaniarrek I. Mundu Guda galdu ostean eta Ukrainatik erretiratzerakoan. 1919ko urtarriletik aurrera, 1919-1921 artean Ukrainan garatu ziren Guda Zibileko gertakizunetan jada ez ziren lehen mailako aktore izango: go-

rri boltxebikeen, zuri kontrairaultzailleen eta beltz makhnovisten aldean, oso babes gutxi izango zuten (Ukrainako Mendebaldera mugatua). Egia da, poloniar armadarekin aliantzan, hilabetez Kiev konkistatzera iritsi zirela 1920ko amaieran (hots, 1918an alemaniarrekin egindako aliantza 1920an poloniarrekin errepikatu zuten), baina hilabete soilik iraun zuten, gorrien kontraerasoaren ostean Kiev berriz galdu baitzuten. Eta normala da, iraultzak, garatu ahala, klaseak polarizatu eta burgesia-ttipia xehatu egiten baitu. Beraz, ukrainar nazionalismoaren babes soziala urtu egin zen.

1920tik aurrera, Guda Zibila bukatuta, finkatu zen jarraikortasuna izan zuen historiako lehen estatu ukrainarra: Ukrainako Sobietar Errepublika Sozialista. Hain zuzen ere, estatu honen mugen barruan Donbass eta Ukraina hegoaldea sartzeak beste ezerk baino gehiago lagundu zuen 2014ra arte iraun zuen mapa sortzen. Bitxia bada ere, 1954ko Krimeako anexioa kenduta, egun oso nazionalista ukrainarrak diren Halitxina eta Volinia izan ziren azken weskualdea Ukrainan sartzen; 1939an sartu ziren.

Lehen zatian, ikusi dugu nola osatu ziren ukrainar nazioa eta estatua; eta Lenin eta Stalin berauek defendatzen ere ikusi ditugu –ez erasotzen, askotan esan den moduan–. Bigarren zati honetan argudio gehiago bilduko ditugu.

Zer diote iraultzaren garaikideek? Bere azkeneko lanetako batean, 1918an, Rosa Luxemburgek Errusiako Iraultza aztertzen zuen (lanak izenburu hori dauka, *Errusiako Iraultza*); batez ere, horren akatsak –egia da gerora orduan «akats» deitu zituen batzuetan atzera egingo zuela, adibidez, Asanbla-

Jon Kortazar

da Konstituziogilea ixtea leporatu zien boltxebikeei, baina Alemaniako Iraultzan zehar antzeko asanblada baten kontra paratu zen–. Horietako bat autodeterminazioaren ingurukoa zen: eskuzabalegi jokatzea leporatu zien boltxebikeei, hala, «alemaniar inperialistei bidea zabalduz» (kontuan izan behar da Luxemburgek lan hori idazterakoan Ukraina alemaniarrek okupatuta zela). Ukrainaren kasuan, baina, harago joan zen: boltxebikeei «ukrainar nazioa, ordura arte Xevtxenkoren poemetan eta nazionalista erromantikoen partidatxo baten amets atzerakoietan soilik existitzen zena asmatzea» leporatzen zien, Ukrainaren sorkuntza «Leninen jolas» gisa definituz.

Beraz, Luxemburgek irizten ziona alde batera, argi dagoena da boltxebikeek ukrainar nazionalitatea garatzea gertakari moduan jartzen zuela –eta horregatik kargu hartzen ziela–. Oker zebilen Luxemburg? Goazen gauza pare bat ikustera: 1918ko otsailean, Donetsk hirian, bertako sobietek, Fiodor «Artiom» Sergeiev buru; Donets-Krivoi Rog Sobietar Errepublika aldarrikatu zuten, Don eta Krivoi Rog haranen artean, hots, Ukrainako Ekialdean eta Erdialdean (Dnieperretik ekialderako lurretan). Gogoratuko duzue, aurreneko zatian esan baitut, orduan Kieven gorriak zeudela boterean; hots, ez zela independentzia «ideologiko» bat izan, «nortasunezkoa» baizik. Esan dezakegu Iraultzaren erdian eta Guda Zibilaren hasieran hartutako erabaki bat izan zela, eta agian ordezkari askok ez zutela oso garbi inguruabarrek nora eramango zuten; orduan mugak zein egitura politikoak oso aldakorrak eta probisionalak zirela eta posible dela hausnarketa handirik ez izatea; baina garbi dagoena da orduan nolabaiteko sentimendu «donbasstar» bat bazegoela. Zer erantzun zuten Moskutik? Ez zutela errepublika hori aintzatesaten eta Ukrainar Sobietar Errepublikaren barne hartzen zutela Donbass. Moskuko gobernu boltxebikearen erabaki hau giltzarria izan zen ordura arte ur biren artean zeuden lur don-

basstarrak (eta baita gaurko Ukraina hegoaldea) Ukrainaruntz bira zitezen, Kieven inguruko esferan gera zitezen. Are gehiago, 1919an, alemaniar okupazioa bukatzerakoan, zenbait komunista donbasstarrek (Artiom Sergeievek, adibidez) Donbasseko Alderdi Komunista sortzeko kongresu bat antolatu zuten. Kasu honetan, Errusiako Alderdi Boltxebikearen Antolakuntza Batzordeko (Orgburo) buru Stalin izan zen ezezkoa eman ziena: donbasstar komunistek Ukrainako Alderdi Komunistan antolatu behar zuten. Hots, garaiko errusiar boltxebikeek Ukrainaren aldeko apustua egin zuten.

Ez badiegu ez Lenini, ez Stalini ez eta Luxemburgi sinesten, beste pertsonaia bat ekar dezakegu, adibidez, Mikhailo Hruxevski, ukrainar historialari eta politikaria, artikulua honen aurreneko atalean ezagutu genuena. Atal hori irakurri duzuenek dakizuen bezala, Ukrainako Errepublika Nazionaleko lehendakari izan zen. Errepublika hori erortzean erbestera joan zen, eta urte batzuk geroago, Kievera itzuli zen. Kievera itzuli zenean, historialari eta politikari nazionalista handiak zera esan zuen: «Ukrainako Sobietar Errepublika Sozialista hau, nik fundatzen lagundu nuen Ukrainako Errepublika Nazionalaren oso antzekoa da». Eta hala izan zen: Ukrainako Errepublika Sozialista berria izan zen lehen aldiz ukrainera ofizial jarri zuena; hau da, komunikabideetako, administrazioko, pasaporteetako, liburuetako, zinemarako eta hainbaterako hizkuntza (20eko hamarkadaren bukaeran, 28 milioi liburu-ale editatu ziren ukraineraz, 1939an; 84 milioi). Ukrainera batua bera ere (eta denok dakigu zein garrantzitsua izan zen euskara batua euskararentzat), Ukraina sobietarrean estandarizatu zen, Mikola Skripnik zuzendari boltxebikea buru zela.

Sobietar Estatua, edo behintzat Ukrainako Sobietar Errepublika Sozialista, estatu ukrainartzailea izan zen, ez errusiartzailea. Beheko mapan ikus dezakegu zein zen 1925eko mapa etnikoa. Egungo datuekin (edo hobe esanda,

[...] garbi dagoena da orduan nolabaiteko sentimendu «donbasstar» bat bazegoela. Zer erantzun zuten Moskutik? Ez zutela errepublika hori aintzatesten eta Ukrainar Sobietar Errepublikaren barne hartzen zutela Donbass

MEDIKUNTZA ETA OFENTSIBA BURGESA



Testua **Martin Goitiandia**

Datorren uztailaren 13tik aurrera greba mugagabea deitu dute Madrilgo ospitale publikoetako barneko mediku egoiliarren (hemendik aurrera BAME) ordezkariak. BAMEaren figura (gaztelaniazko MIR) orokorrean aztertze modukoa da, «formakuntza jasotzen» ari diren langileen figura baita, mediku lanetan, praktiketako langileen antzeko zerbait. Praktiketako gainerako langileek bezala soldata baxuagoagatik eta baldintza okerragoetan lan egiten dute, esperientzia faltaren aitzakiapean. Hala ere, bizi dugun pandemiaren testuinguruan adibide bikaina dira ematen ari diren aldaketak behin-behinekoak ez direla agerian uzteko. Madrilgo BAME hauek osatu duten greba komiteak adierazi duenez, COVID-19aren harira, urteetan jasandako baldintza negargarriak are gehiago okertu dira: beren soldata, hein handi batean, 17 eta 24 orduen arteko lanaldien menpe dago (Madrilgo bizitza-kostuari aurre egiteko, asteko 50-60 ordu egin behar dituzte), eta horrelako lanaldien ondoren, ez dute behar besteko atsedena izaten (Langileen Estatutuak dioenaren aurka). Era berean, behar bezalako ikuskapenik gabe egiten dute lan, ez dagozkien funtzioak beren gain hartzen dituzte eta beste egoiliarren bajak betetzen dituzte ez dagokienean, besteak beste. Osasun krisi honetan,



BAMEaren figura osasun sistemaren berregituraketarako funtsezko elementua izan dela esan dezakegu, beraz. Nola?

BAME hauek, beren jatorrizko funtziotik urrun, osasun zentroen funtzionamendurako zutabe bihurtu dira. Beharrezko osasun langileen kontratuak sortu ordez (dagozkien egonkortasun eta baldintzekin) egoiliar hauen figura kopurua handitu dute lan kopuru handiagoari aurre egiteko. Funtzio berberak beren gain hartzen dituzten langile merkeagoak bihurtu dira. Beste edozein ekoizpen esparrutan (sektore publiko, pribatu...) hartu den joera da hau, praktiketako langile merkeagoa lehengo langileak ordezkatzeko erabiltzea, hori ez da ezer berria. Are gehiago, baldintza okerragoetan lan egiten duten praktiketako langile ugari daude, bai eta etorkizunerako espektatiba okerragoak dituztenak ere. Baina, adibide honek, krisiaren aurrean aldaketak nola ematen diren erakusten digu. Etekina kolokan jarri denean, medikua lan-baldintza onenekin lotzen duen irudi orokortua berehala apurtu da, eta medikuntza ikasleak, etorkizunean burgesia txikiaren parte ere izatera iristeko itxaropena izan dezaket horiek, lan-esku prekario gisa erabiltzen dira. Hau guztia ez da koronabirusari aurre egi-

teko momentuko neurria, krisi garaian kapitalak egiten duen berregituraketaren parte baizik.

Krisi egoeran aldaketa sakonak egin behar ditu kapitalak. Irabaziak urriagoak direnez, bere etekinak mantentzen dituen kapitalista garaile irtengo da. Horretarako, bakoitzak bere lehiakideek baino aldaketa sakonago edo gogorragoak hartu behar ditu (soldatak jaitsi, lan-ordu gehiago eginarazi, langileak kaleratu...). Merkatuaren darwinismo honek aldaketa estrukturalak egitera behartzen du kapitala bere kontrolpean dituen eremu guztietan. Horrek esan nahi du, enpresa pribatuaren fabriketatik hara-

“

80eko hamarkadako krisian «industria-birmoldaketa» egin zen bezala edo 2008an Ongizate Estatuaren deskonposizioa bizkortu zen gisara, krisi guztiak baliatzen dira halako aldaketa traumatikoak egiteko. Horrek esan nahi du BAMEen pisua handitzea osasun sisteman ematen ari den aldaketa bat dela (kostuak murrizteko etab.), eta COVID-19ak azkartu egin duela, baina ez dela pandemia garairako soilik hartu den neurri bat. Era berean, COVID-19aren harira sortutako egoeran bizitzen ari garen gainontzeko aldaketa sakonak ez dira unean uneko neurri hutsak, egonkortzen doan berregituraketa bat baizik

go, sektore publikoak ere logika horren baitan funtzionatzen duela (hortxe dugu EAEn hezkuntzan egingo diren murrizketen susmoa), eta kasu honetan, baita Madrilgo administrazioaren osasunaren kudeaketa ere. Madrilgo osasun sistema lan-indar debalutua kontratatuz (BAMEak) egokitu da krisi egoerara. Formakuntza jasotzen ari diren langile hasiberriak izatetik, osasun sistemako lan-kargaren zati handi bat beren gain hartzera pasatzen ari dira beren plaza kopurua etengabe handitzen ari den honetan. Era horretan, etorkizunean BAME figura oinarritzko lan-indarra bihurtu daiteke medikuen artean, eta gainerako medikuen baldintzak, egoiliar hauen baldintzekin berdindu ditzakete (espezializazio berezi eta urrietako medikuen baldintzak soilik mantenduz). Madrilgo erkidegotik harago ere birmoldatze hau antzeman daiteke: Unibertsitateko Indar Batasunak (UIB) konfinamendu hasieran salatu zuen EHUK erizaintzako ikasleak baldintza negargarrietan zituela lanean, eta medikuntzako ikasleak (BAME izateko azterketa oraindik egin ez dutenak) beren praktikak pandemiari aurre egiten osatzeko proposamena prest zuela Osakidetzarekin batera, gutxienerako soldata kobratuz mundu osoko



pandemia bati aurre egiteagatik!

Ez dut gaia gertutik ezagutzen, beraz, zehazki zer gertatuko den ezin dut jakin, baina adibide horrekin frogatu nahi dudana hipotesia honakoa da: burgesia gaur egungoa bezalako krisi garaiez baliatzen da bere posizioa indartzeko. 80eko hamarkadako krisian «industria-birmoldaketa» egin zen bezala edo 2008an Ongizate Estatuaren deskonposizioa bizkortu zen gisara, krisi guztiak baliatzen dira halako aldaketa traumatikoak egiteko. Horrek esan nahi du BAMEen pisua handitzea osasun sisteman ematen ari den aldaketa bat dela (kostuak murrizteko etab.), eta COVID-19ak azkartu egin duela, baina ez dela pandemia garairako soilik hartu den neurri bat. Era berean, COVID-19aren harira sortutako egoeran bizitzen ari garen gainontzeko aldaketa sakonak ez dira unean uneko neurri hutsak, egonkortzen doan berregituraketa bat baizik. Litekeena da neurri batzuk –irakaskuntza telematikoa, adibidez– zertxobait leuntzea orain, baina egon ziur aldaketa asko mantenduko direla txertoa aurkitu ondoren ere –irakaskuntza mistoa, esaterako–. Krisi garaiak aldaketa garaiak dira, eta hau ez da salbuespena izango: telelana, etxean geratzea, presentzia polizial eta militar orokortua, enplegu-erregulazio espedienteen malgutasuna (EEE, ABEE...)... Lan-indar merke eta sumisoa sortzeko prozesu honi guztiari honela deritzogu: «ofentsiba burgesa».

Madrilgo egoiliarren egoerara itzuliz, ofentsiba honen aurrean beren posizioa defendatzeko mekanismoak martxan jartzen saiatzen ari dira, nolabait. AMYTS sindikatuak hitzarmen bat proposatu zuen BAMEen figura nolabait erregulatu eta ziurtasun batzuk emateko. Enpresa batzordeak hitzarmen hori Madrilgo administrazioari iritsiarazi dio, baina hura ez dago gutxienerako marko legal hori onartzeko prest ere. Argi dago ofentsiba burgesa gehien sufritzen duten sektoreak atomizatuena eta eze-gonkorrenak direla, lan-indar debalutuenak: praktiketakoak, epe laburreko kontratuak dituztenak, aldi baterako lanen enpresa bidez kontratatuak... Are gehiago, Madrilgo auziaz ez da hitz egin ere greba deitu duten arte. Administrazioak, beren eskaerak (hitzarmen ziztrin bat) «gehiagizkoak» direla adieraztearekin bakarrik paretik kendu zituen. Grebak indar korrelazioan aurrera egiteko aukera eman die. Ikusiko dugu nola doan, baina atera behar dugun irakaspena ez da grebaren mekanismoarekiko atxikipena (sektore batzuetan hau ezin baita planteatu ere egin), presio eta autodefentsa mekanismo eraginkorren beharra baizik. Horrela soilik egin diezaiokegu aurre gainera datorkigun bigarren gaitzari, hau da, ofentsiba burgesari. /

Argitaraturik
2020KO ABUZTUAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
GR 1731-2019

Lizentzia



arteka

